

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitza

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu Amaierako Lana

2023/2024 Ikasturtea

CODESPA FUNDAZIOAREN ANALISI EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2019-2022 URTE BITARTEAN

EGILEA: Ane Bilbao Incera

TUTOREA: Blanca Arosa de la Torre



Bilbo, 2024ko ekainaren 19a

- AURKIBIDEA -

1. SARRERA.....	2
2. CODESPA FUNDAZIOAREN AURKEZPENA.....	3
3. METODOLOGIA.....	5
4. CODESPA FUNDAZIOAREN ANALISI EKONOMIKO FINANTZARIOA 2019-2022.....	7
4.1. Egitura ekonomiko finantzarioa.....	7
4.1.1. Egitura ekonomikoa. Aktiboa.....	7
4.1.2. Egitura finantzarioa. Ondare Garbia eta Pasiboa.....	10
4.1.3. Ekitaldiko emaitza. Bilakaera eta egitura.....	15
4.2. Politiken analisia.....	18
4.2.1. Ibilgetuaren kudeaketa politika.....	18
4.2.2. Pertsonalari buruzko politika.....	19
4.3. Likidezia.....	21
4.3.1. Errotazio Fondoa eta aldakuntzaren zergatiaren analisia.....	21
4.3.2. Kaudimena eta likidezia.....	22
I. Epe laburreko kaudimena eta likidezia.....	22
II. Kaudimen totala.....	25
4.4. Errentagarritasun ekonomikoa eta finantzarioa.....	29
4.4.1. Errentagarritasun ekonomikoa.....	29
4.4.2. Errentagarritasun finantzarioa.....	32
4.5. Diru fluxuen egoera orriaren analisia.....	34
5. ONDORIOAK.....	40
6. BIBLIOGRAFIA.....	44
7. ERANSKINAK.....	45

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Grafiko 1. CODESPA Fundazioaren egitura ekonomikoa 2019-2022.

Grafiko 2. CODESPA Fundazioaren egitura finantzarioa 2019-2022.

Grafiko 3. CODESPA Fundazioaren ekitaldiko emaitzaren analisisa eta eboluzioa 2019-2022.

Grafiko 4. CODESPA Fundazioaren aktibitate propioaren diru sarreraren kopurua 2019-2022.

Grafiko 5. CODESPA Fundazioaren epe laburreko kaudimen ratioen eboluzioa 2019-2022.

Grafiko 6. CODESPA Fundazioaren kaudimen totalaren ratioaren eboluzioa 2019-2022.

Grafiko 7. CODESPA Fundazioaren errentagarritasun ekonomikoaren eboluzioa 2019-2022.

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1. CODESPA Fundazioaren aktiboa eta bere bilakaera 2019-2022 urte bitartean.

Taula 2. CODESPA Fundazioaren Ondare Garbia eta Pasiboa eta bere bilakaera 2019-2022 urte bitartean.

Taula 3. CODESPA Fundazioaren ekitaldiko emaitzaren analisisa 2019-2022 urte bitartean.

Taula 4. CODESPA Fundazioaren ibilgetuaren kudeaketa politikaren ratioen kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Taula 5. CODESPA Fundazioaren pertsonal politikaren ratioen kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Taula 6. CODESPA Fundazioaren epe laburreko Errotazio Fondoaren kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Taula 7. CODESPA Fundazioaren epe luzeko Errotazio Fondoaren kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Taula 8. CODESPA Fundazioaren epe laburreko kaudimen ratioen kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Taula 9. CODESPA Fundazioaren kaudimen totalaren ratioaren kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Taula 10. CODESPA Fundazioaren zorpetze ratioaren, autonomia finantzarioaren eta kapitalaren iraunkorren osakeraren ratioen kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Taula 11. CODESPA Fundazioaren BAIDI kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Taula 12. CODESPA Fundazioaren errentagarritasun ekonomikoaren, marjinaren eta errotazioaren kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Taula 13. CODESPA Fundazioaren errentagarritasun finantzarioaren kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Taula 14. CODESPA Fundazioaren DFE orria 2019-2022 urte bitartean.

Taula 15. CODESPA Fundazioaren ekitaldiko emaitza, sortutako baliabideak eta UJDF 2019-2022 urte bitartean.

1. SARRERA

Gradu Amaierako Lan honetan Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) baten analisi ekonomiko-finantzarioa egingo da. Honen bidez baieztatzen dugularik irabazi-asmorik gabeko erakundeak ere modu eraginkor eta efizientean kudeatu behar direla, beste edozein erakundek bezala, baliabide propioak edo kanpokoak aplikatuz alde aurretik ezarritako jarduketara-plana gauzatzeko, beste erakunde batek bere aurrekontuak finkatzen dituen bezala.

Aurrera eramango dugun azterketa 2019, 2020, 2021 eta 2022 ekitaldietara mugatuta egongo da. Denok dakigun bezala, zoritxarrez, 2020an COVID-19ak eragindako pandemia bat jasan genuen, eta honek alarma-egoera deklaratzeko eragin zuen Espainiako lurralde osoan, baita hedapen-uhin bat eragin zuen ere munduko ekonomia osoan eragina izan zuena eta krisirik handiena eragin zuena mende bat baino gehiagotan. Horren ondorioz, barne-desberdintasunak eta herrialdeen arteko desberdintasunak nabarmen egin zuen gora.

Ildo honetan, krisiaren ondorengo susperraldia hasierako inpaktu ekonomikoak bezain desberdina izango dela ondorioztatzen da, gorabidean dauden ekonomiek eta talde behartsuek askoz denbora gehiago beharko dute pandemiak eragindako diru-sarreraren eta bizi-baliabideen galerei aurre egiteko, alegia. Pandemiaren eragin ekonomikoak bereziki larriak izan ziren gorabidean zeuden ekonomietan, non diru-sarreraren galerek agerian utzi eta areagotu egin baitzituzten lehendik zeuden hauskortasun ekonomikoko zenbait faktore. Honen aurrean eta azterlan honen bitartez, ikusiko dugu irabazi-asmorik gabeko erakundeek beren proiektuak egiten jarraitzea lortzen duten eta krisi horrek eragiten dien. Hau guztia mota honetako erakundeek gizarteko sektore behartsuenei laguntzeko duten garrantziagatik.

Gradu Amaierako Lana azterketa ekonomiko-finantzario bati buruz egitea erabaki dut, karreraren eta, batez ere, kontabilitate-analisiaren irakasgaiaren eskuratutako ezagutza teorikoak testuinguru praktikoa batean aplikatu ahal izateko. Honek aukera emango dit ikasitako kontzeptu ekonomiko eta finantzarioak aplikatzeko gaitasuna erakusteko. Era berean, analisi ekonomiko-finantzarioa egiteko prozesuak berekin dakar finantza-datu garrantzitsuak biltzea, antolatzea eta aztertzea; ikerketarako, datuen analisirako eta arazoak konpontzeko trebetasunak garatzen lagunduko didana eta lan-munduaren etorkizunerako baliagarria izango zaidana.


Bestalde, nabarmentzekoa da lan honek hainbat zati izango dituela. Lehenik eta behin, analisia egingo zaion Fundazioaren aurkezpen labur bat aurkituko dugu. Ondoren, lana aurrera eramateko erabiliko ditugun tresnak azalduko ditugu, hau da, erabilitako metodologia azalduko dugu. Azkenik, lanaren zati garrantzitsuenean sakonduko dugu, hots, analisi ekonomiko-finantzarioan. Bertan, Fundazioaren 2019tik 2022ra urte bitarteko urteko kontuen bitartez enpresaren egiturak bai ekonomikoa bai finantzarioa, ekitaldiko emaitza, politiken analisia, likideziaren analisia, enpresen errentagarritasun ekonomikoa eta finantzarioa eta diru fluxuen egoera orriaren analisia burutuko dugu. Amaitzeko, zenbait ondorio aterako dira, lanean landutako puntuei men eginez eta punturik esanguratsuenak azpimarratuz.

2. CODESPA FUNDAZIOAREN AURKEZPENA

CODESPA Fundazioa 1985eko azaroaren 12an eratu zen Madrilen, irabazi-asmorik gabeko Gobernuz Kanpoko Erakunde (GKE) gisa, herrialde pobretuen gabezien aurrean, bereziki Espainiarekin historikoki lotuta daudenen aurrean, kezka komuna zuen unibertsitateko irakasle eta enpresaburu talde batek bultzatuta. 1987an, sortu eta handik bi urtera, Latinoamerikako zortzi herrialdetan proiektuak gauzatu zituen, eta Europako Batzordearekin batera finantzatzeko lehen proiektua sinatu zuen. Hurrengo urteetan, hainbat jarduera ere gauzatu zituen, hala nola, CODESPA saria eman zuen Enpresa Solidarioa kategoriarekin, eta Nazio Batuen Erakundearen Elikadura eta Nekazaritza Agentziarekin (FAO) eta Unescorekin hasi zen lanean. Aldi honetan, Kataluniako, Valentziako Erkidegoko eta Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak ere sortu ziren eta 1993an, Felipe VI.a erregeak bere gain hartu zuen ohorezko presidentearen kargua. Harrezkero, hirugarrenei laguntzeko jarduerak etenik gabe egon da, eta honek gaur arte 1.300 proiektu baino gehiago kudeatu dituela ekarri du Iberoamerikako, Afrikako eta Asiako 33 herrialdetan. Gainera, milioika pertsonak beren bizi-baldintzak hobetzen lagunduz.

CODESPA fundazioaren misioa Iberoamerikan, Afrikan eta Asian 10 milioi pertsona pobreziatik oparotasunera pasatzea da, landa-merkatuak garatzeko eta ekintzaileei laguntzeko eredu eskalagarri baten bidez, ezagutza, finantza-zerbitzuak eta merkatu-aukerak emanez. Halaber, fundazio honek uste sendoa du mundu honetan pertsona bakoitzak (baita muturreko pobrezia-giroan hazi bada ere) aukera duela bere potentzial guztia hedatzeko eta autosufizientea izateko, lan duin eta egonkor baten bidez.

Ildo honetan, CODESPA Fundazioak garapenerako lankidetzajarduerak egiten ditu nagusiki, prestakuntzaren eta laneratzearen bidez, gizarte-enpresak eta landa-merkatuak sustatuz, eta landa-turismoa eta turismo komunitarioa genero-ikuspegitik sustatuz. Era berean, mikrofinantzetako zeharkako proiektuak egiten ditu, ekoizle eta familia kalteberen finantza-inklusioa sustatzeko, finantzetan hezteko, mikrofinantza-erakundeak indartzeko eta produktu mikrofinantzarioak diseinatu eta inplementatzeko, haien diru-sarrerak handitzeko eta elikadura- edo osasun-krisiak murrizteko. 2021ean 11.115 mikrokreditu eman ziren, guztira 4.468.682€-ko zenbatekoarekin, besteak beste. Halaber, enpresei eta erakundeei bideratutako aholkularitza-zerbitzua ematen da, garapen-estrategia diseinatu eta gauzatu dezaten. Azkenik, ikerketa- eta sentsibilizazio-lanak burutzen ditu, Espainian egindakoak. Nabarmentzeko da jarduera hauen zuzeneko onuradun kopurua 150.000 pertsonakoa dela kalkulatu da eta 882.859 zeharkako onuradunak, hainbat herrialdetan banatuta daudelarik (gehienak kalteberatasun-egoerakoak eta garapen-bideakoak). Lealtad fundazioaren txostenaren arabera, jarduera horiek mundu osoan egiten dira, neurri handiagoan edo txikiagoan, herrialde bakoitzaren behararen arabera:



Iturria: Lealtad Fundazioa, 2023

CODESPA Fundazioaren gobernu-organoari dagokionez, Felipe de Borbón jauna du ohorezko presidente gisa. Halaber, Batzorde Betearazle bat du eskuordetutako eginkizunak dituen, honako hauek osatua: presidentea, bigarren presidenteordea, idazkaria eta Patronatuko lau bokal, bai eta zuzendari nagusia ere, hitzarekin baina botorik gabe. Hainbat batzorde eratu ditu (AD-HOC funtsak atzemateko, ebaluazio eta plangintzarako eta marketinerako eta auditoria-batzorderako), Fundazioko patronoek eta langileek osatuak. Erakundeak dituen bazkide laguntzaileen artean, Enpresa Behatokia osatzen duten enpresak sartzen dira: IESE Business School, The Boston Consulting Group, BBVA, Sener, Repsol,

Divina Seguros, Open Value Foundation, DIA, Mahou, La Caixa Fundazioa, KPMG Fundazioa, Arquia Banca eta Impactun Fundazioa.

Beraz laburbilduz, CODESPA Fundazioak pobrezia murrizteko eta garapen iraunkorra sustatzeko lan egiten du mundu osoko komunitate behartsuetan. Bere programa eta proiektuek eragin positiboa dute hezkuntzan, osasunean, enpleguan, ekintzailertzan eta garapen komunitarioan. Gainera, gardentasun- eta erantzukizun-estandar handiak ditu bere finantza-kudeaketan eta kudeaketa operatiboan. Amaitzeko, CODESPAk bazkide sorta zabal batekin kolaboratzen du, gobernuak, enpresak, irabazi asmorik gabeko erakundeak eta tokiko komunitateak barne. Lankidetzaren estrategiko horiek aukera ematen diote inpaktua maximizatzeko eta epe luzera emaitza jasagarriak lortzeko.

3. METODOLOGIA

Gratu Amaierako Lan honetan CODESPA Fundazioaren analisi ekonomiko finantzarioa burutu da, 2019-2022 ekitaldian. Fundazio honen hautaketa hainbat arazoirengatik dago oinarrituta, hala nola, gardentasuna bermatzen duen fundazio bat dela. Hala, Lealtad Fundazioak (ebaluazio-prozesua gainditu duelako eta Gardentasunaren eta Jardunbide Egokien 9 Printzipioak osorik betetzen dituelako) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECID) egiaztatzen dute.

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia (AECID) Espainiako Kanpo Arazoetako Ministerioaren erakunde publiko bat da, garapenerako nazioarteko lankidetzako politikak planifikatzen eta kudeatzen dituena. Helburua pobrezia aurka borrokatzea eta garapen bidean dauden herrialdeetan giza garapen iraunkorra sustatzea da. GGKE kalifikatu bat Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak egindako berrikuspen bat gainditu duen erakundea da. Berrikuspen horretan, esperientziari, finantza-kaudimenari, gardentasunari edo giza baliabideei buruzko 70 irizpide kualitatibo eta kuantitatibo baino gehiago baloratzen dira, besteak beste. Lealtad Fundazioak, bestalde, GKEekiko konfiantza sustatzen du, haien gardentasunaren eta jardunbide egokien ebaluazio independentearen bidez. 2001az geroztik, kudeaketa eraginkorraren eta jendearen eskura dauden baliabideen erabilera egokiaren printzipioak betetzeari buruzko txosten xehatuak egiten ditu. Konfiantzazko Dohaintza zigiluak 9 Gardentasun Printzipioak eta Kudeaketa Jardunbide Egokiak osorik betetzen dituzten GKEak aintzatesten ditu. Gainera, aholkularitza

eskaintzen die GKEei beren praktikak hobetzeko, gardentasuna sustatzen du eta emaileen informazio egiaztatua duen online plataforma bat eskaintzen du, ekarpenei buruzko erabaki informatuak emanez.

Halaber, gaur egun, munduko desberdintasunak gero eta muturrekoagoak dira, gizarte oso indibidualista bihurtu gara, eta bakoitzak bere buruari bakarrik erreparatzen dio besteen beharrei jaramonik egin gabe. Honen aurrean, CODESPA Fundazioak beste alde batera begiratu beharrea lankidetzaren eta garapenaren alde lan egiten du, pertsoneri eta familiei pobreziatik ateratzen lagunduz. Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako landa- eta hiri-komunitateekin lan egiten dute, eta aukerak sortzen dituzte beraiek muturreko pobrezia-zikloa amai dezaten.

Analisi ekonomiko-finantzario hau burutzeko, CODESPA Fundazioaren urteko kontuak erabili ditut, bere web-orriaren bidez lortutakoak. Urteko kontu horietan fundazioaren informazioa aurki dezakegu baita Balantzea, Galdu-Irabazien orria eta Diru fluxuen egoera orriak ere. Era berean, beste informazio-iturri batzuk erabili dira (bibliografia atalean zehazturik), hala nola unibertsitateak berak (EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateak) irakasgai honi buruz emandako apunteak.

Bestalde, analisi ekonomiko finantzario hau aurrera eramateko tresna ezberdinak erabili dira, adierazle ekonomiko eta finantzarioak eta ratio desberdinak, besteak beste. Gainera, hainbat grafiko eta taula erantsi dira informazioa osatzearren. Inbertsio eta finantzaketaren egiturak eta bilakaera aztertzeko balio absolutuak ez ezik balio erlatiboak (bertikalak) eta zenbaki indizeak (horizontalak) ere erabili dira, ekitaldeen arteko azterketa errazten dutenak.

Jarraian hasiko dugun azterketan, aztertu beharreko epea, arestian aipatu dugun bezala, 4 urtekoa da. Honi esker, analisi dinamikoagoa egin ahal izango dugu, eta urtez urte gertatu diren aldaketak aztertu ahal izango ditugu, zergatiak identifikatuz.

4. CODESPA FUNDAZIOAREN ANALISI EKONOMIKO FINANTZARIOA 2019-2022


4.1. Egitura ekonomiko finantzarioa

4.1.1. Egitura ekonomikoa. Aktiboa

Aktiboak enpresaren egitura ekonomikoa eta inbertsio-egitura erakusten dizkigu, hots, enpresak zein ondasun, eskubide eta bestelako baliabide ekonomikotan gauzatu dituen bere funtsak, eta etorkizunean horietatik irabaziak edo etekin ekonomikoak lortzea espero duen. Likidezia irizpidearen arabera aurkezten da, aktiboaren elementuak likidezia txikienetik handienera ordenatuta. Egungo balantze-ereduak amortizazio metatuen eta narriaduragatiko balio-zuzenketen inbertsio garbien datuak aurkezten ditu. Beraz, hau esanda, Aktibo Korrontea nahiz Aktibo Ez Korrontea aztertzea beharrezkoa da, epe laburreko inbertsioa eta epe luzeko inbertsioa hurrenez hurren.

Grafiko 1. CODESPA Fundazioaren egitura ekonomikoa 2019-2022.

Iturria: Norberak egindakoa



CODESPA Fundazioaren balantzeari behin begirada bat emanda eta grafikoari men eginez ikusi dezakegu 4 ekitaldietan (2019, 2020, 2021 eta 2022) epe laburrean epe luzean baino askoz gehiago inbertitzen dela, zera da, inbertsio-egitura gehien bat aktibo korrontean oinarritzen da. 2019-2022 urte bitartean aktiboak gora egin zuen, 5.351.976€ izatetik 7.385.275€ izatera pasatu baitzen, %40ko hazkundearekin oinarri urtearekiko. 2020an aktiboa murriztu egin zen baina 2021 ekitaldian berriro ere gora egin zuen %22,66ko hazkundearekin. Inbertsio egitura nolakoa den aztertzerakoan garrantzitsua da balio

erlatiboak kontuan hartzea, balio hauei esker jakingo baitugu aktibo totalaren gaineko zein portzentai duen partida bakoitza.

Taula 1. CODESPA Fundazioaren aktiboa eta bere bilakaera 2019-2022 urte bitartean.

Iturria: Norberak egindakoa

AKTIBOA	2022			2021			2020			2019				
	B.E.	BH aurreko urtekoa	BH oinarri urtea	B.E.	BH aurreko urtekoa	BH oinarri urtea	B.E.	BH	B.E.	BH				
A) AKTIBO EZ KORRONTEA	403.943	5,47%	92,13%	113,76%	438.443	6,83%	105,20%	123,48%	416.762	7,96%	117,37%	355.070	6,63%	100%
L IBILGETU UKIEZINA	51.544	0,70%	70,97%	138,70%	72.626	1,13%	177,80%	195,44%	40.846	0,78%	109,92%	37.161	0,69%	
Aplikazio informatikoak	51.544	0,70%	70,97%	138,70%	72.626	1,13%	177,80%	195,44%	40.846	0,78%	109,92%	37.161	0,69%	
II. IBILGETU MATERIALA	292.557	3,96%	98,70%	92,86%	296.410	4,62%	97,99%	94,08%	302.501	5,78%	96,01%	315.059	5,89%	
Lursailak eta eraikinak	247.984	3,36%	96,13%	89,22%	257.972	4,02%	96,27%	92,81%	267.959	5,12%	96,41%	277.947	5,19%	
Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu batzuk	44.573	0,60%	115,96%	120,10%	38.438	0,60%	111,28%	103,57%	34.542	0,66%	93,08%	37.112	0,69%	
III. EPE LUZEKO FINANTZA INBERTSIOAK	59.842	0,81%	86,22%	2099,72%	69.407	1,08%	94,54%	2435,33%	73.415	1,40%	2575,96%	2.850	0,05%	
Epe luzeoko beste aktibo batzuk	13.156	0,18%	102,38%	461,61%	12.850	0,20%	450,88%	450,88%	2.850	0,05%	100,00%	2.850	0,05%	
Erakundeetako kredituak	46.686	0,63%	82,55%		56.557	0,88%	80,15%		70.565	1,35%				
B) AKTIBO KORRONTEA	6.981.332	94,53%	116,67%	139,71%	5.983.829	93,17%	124,17%	119,75%	4.819.013	92,04%	96,44%	4.996.906	93,37%	
I. ERABILTZAILA ZORDUNAK	352.848	4,78%	413,16%	147,40%	85.402	1,33%	37,15%	35,68%	229.870	4,39%	96,03%	239.374	4,47%	
II. ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRATZEKO BESTELAKO KONTUAK	350.529	4,75%	84,48%	83,84%	414.934	6,46%	89,06%	99,24%	465.885	8,90%	111,43%	418.097	7,81%	
Zordun batzuk	266.841	3,61%	76,68%	160,21%	348.009	5,42%	147,19%	208,95%	236.432	4,52%	141,96%	166.553	3,11%	
Pertsonala	1.476	0,02%	166,03%	116,31%	889	0,01%	111,54%	70,06%	797	0,02%	62,81%	1.269	0,02%	
Bestelako zordunak	82.212	1,11%	124,50%	32,85%	66.035	1,03%	28,88%	26,38%	228.656	4,37%	91,36%	250.276	4,68%	
III. EPE LABURREKO FINANTZA INBERTSIOAK	290.495	3,93%	295,10%	105,13%	98.441	1,53%	29,31%	35,62%	335.918	6,42%	121,56%	276.332	5,16%	
Erakundeentzako kredituak	286.785	3,88%	293,39%	103,78%	97.750	1,52%	29,10%	35,37%	335.918	6,42%	121,56%	276.332	5,16%	
Epe laburreko periodifikatzeak	3.710	0,05%	536,90%		691	0,01%								
IV. ESKUDIRUA ETA BESTE AKTIBO LIKIDO BATZUK	5.987.460	81,07%	111,19%	147,36%	5.385.052	83,85%	142,19%	132,54%	3.787.340	72,34%	93,21%	4.063.103	75,92%	
Diruzaintza	5.987.460	81,07%	111,19%	147,36%	5.385.052	83,85%	142,19%	132,54%	3.787.340	72,34%	93,21%	4.063.103	75,92%	
AKTIBO TOTALA (A+B)	7.385.275	100%	114,99%	137,99%	6.422.272	100%	122,66%	120,00%	5.235.775	100%	97,83%	5.351.976	100%	100%

2019an aktibo korronteak aktibo totalaren gaineko %93,37ko portzentaia zuen eta aktibo ez korronteak, berriz, %6,63a. Aurretik esan dugun moduan, portzentai hauek argi uzten dute askoz gehiago inbertitzen dela epe laburrean epe luzean baino. Honen arrazoa da, neurri handi batean, fundazioek ez dutela kapitala inbertitzen ibilgetu materialean eta ukiezinean, ez baitute behar. Honek aditzera ematen digu fundazioak duen kapitala errentagarri bihurtu nahi duela, dirua gehiago erabili ahal izateko eta azken helburu sozialera diru gehiago bideratu ahal izateko.

Behin hau esanda, 2019an aktibo korrontearen barnean partidarik garrantzitsuen "eskudirua eta beste aktibo likido batzuk" da %75,92ko inbertsioarekin, fundazioak dituen finantzaketa-iturrietatik lortzen duen kapitala baita, jarduera ezberdinak egiten eta ordaintzen jarraitu ahal izateko. Hots, esan genezake CODESPAk diru-erreserbak dituela diruzaintzako idapazpenean, gastu operatiboak, etorkizuneko proiektuak eta gerta daitezkeen larrialdiak estaltzeko. Garrantzi gehien duen hurrengo partida (diruzaintza baino dezente gutxiago) "zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk" izenekoa da %7,81 portzentaiarekin. Epe laburreko hainbat zordun partidak "enpresen eta erakundeen dohaintzek kobratzeko dituzten zenbatekoak" eta "beste batzuk" jasotzen ditu (azken honek, nagusiki,

emaile partikularren saldoei dagokie). “Pertsonala” bidaia-gastuetarako eta beste gastu batzuetarako langileei emandako aurrerakinak jasotzen ditu eta “bestelako zordunen” partidak administrazio publikoen eta erakunde aldeaniztunen epe laburreko kobrantza-eskubideak islatzen ditu. CODESPA Fundazioa dohaintzen, dirulaguntzen edo itzuli behar ez diren beste funts batzuen bidez finantzatzen da nagusiki, eta, beraz, kobratzeko kontuak sortzen dituzten merkataritza-transakzio gutxi ditu. Kasu honetan, diru-sarrera gehienak berehala edo atzerapen txikiarekin jasotzen direla esan genezake, eta hori kobratzeko kontuetan saldo txikiak izatea. Ildo berean, “erabiltzaile zordunak” partidak %4,47ko inbertsioa du totalarekiko, eta honek proiektuak gauzatzeko jasotzen dituzten eta justifikatu gabe dauden tokiko bazkideei egindako aurrerakinen saldoa jasotzen du. Zenbateko hauek maiztasun handiz justifikatzen direnez, emaitza-kontuan izan dezaketen eragina oso txikia da.

Epe luzeari dagokionez, aipagarriena den partida ibilgetu materialarena da, aktibo totalarekiko %5,89 portzentaiarekin, zehazki “lursailak eta eraikinak”. Honek, Fundazioak Rafael Bergamín kaleko 12. zenbakian (Madril) erositako lokalaren balioa jasotzen du, non bere bulego nagusia dagoen. Fundazioak aseguru-polizak ditu kontratatuta ibilgetu materialeko elementuei eragin diezaieketen balizko arriskuak estaltzeko.

Inbertsio-egiturak ekitaldiz ekitaldi izan dituen aldaketak aztertzeko balio horizontalak ezinbestekoak dira, bai aurreko urtearekiko izan dituen aldaketak aztertzeko bai oinarri urtearekiko. Hurrengo ekitaldietan, epe laburrari dagokionez, partidarik garrantzitsuena “eskudirua eta beste aktibo likido batzuk” izaten jarraitzen zuen. Hala ere, 2020an aurreko ekitaldiarekin alderatuta %6,79ko beherakada izan zuen. 2021 eta 2022 ekitaldietan, berriz, diruzaintza gora egin zuen eta 2021ean hazkunderik handiena eman zen, 3.787.340€ izatetik 5.385.052€ izatera pasatuz, %42,19ko hazkundera, alegia.

"Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk" partidak, aldiz, diruzaintzaren kontrako dinamika izan zuen urteak pasa ahala. Hots, 2020an erakunde eta enpresei eta emaile partikularrei kobratzeko zeuden zenbatekoak handitu egin ziren eta ondorioz, %11ko igoera izan zuen aurreko urtearekin alderatuta (horrela, %8,90eko inbertsioa zuelarik). Baina 2021 eta 2022ko ekitaldietan %10,94ko eta %15,52ko murrizketa egon zen aurreko ekitaldiekiko.

2021eko ekitaldian, gainerako epe laburreko inbertsioek behera egin zuten partida guztietan, aurreko bi urteekin alderatuta eta nabarmentzekoa da finantza inbertsioaren partidaren jaitsiera, %70,69ko jaitsiera izan baitzuen aurreko urtearekiko. Hala ere, aipatutako gainerako partida hauek 2022ko ekitaldian berriro ere nabarmen gora egin zuten, “erabiltzaile zordunak” partidak %313,16 igo baitzen 2021 urtearekiko eta finantza inbertsioak %195,10.

Epe luzeari dagokionez, partidarik garrantzitsuena ibilgetu materiala izaten jarraitzen zuen. Baina nabarmentzeko da 2020ko ekitaldiaren epe luzearen inbertsioaren hazkundera finantza-inbertsioen hazkundera oinarritzen dela. Horren arrazoia da CODESPA fundazioari lotutako erakundeetako partaidetzak handitu egin zirela, %1,40ko inbertsioarekin totalarekiko. Halaber, 2021eko ekitaldian, partidarik garrantzitsuena ibilgetu materiala izaten jarraitu arren inbertsioa %2an jaitsi zen, baina ibilgetu ukiezinaren %77,80ko igoerak murrizketa hori estali egin zuen eta aktibo ez-korrontea murriztu beharrean handitu egin zen. Ibilgetu ukiezinaren hazkunderaren arrazoia da Fundazioaren sistema informatikoen funtzionalitateak zabaltzeko lizentziei alta eman zirela, bere web korporatiboaren programazio berriak garatu zirela eta Fundazioaren posizionamendu berri bat ezartzera bideratutako aholkularitza-zerbitzu baten gastuak ordaindu zirela.

Hortaz, ondorio gisa, 4 ekitaldietan egitura ekonomiko oso antzekoa izan dela esan dezakegu. 4 urteetan aktibo korrontea aktibo ez korrontearen dezente gainetik egon da eta aktibo korrontearen barnean partidarik garrantzitsuena argi eta garbi diruzaintza dela ikus dezakegu. Hau ez da harritzeko modukoa; diruzaintzan diru kopuru egokia mantentzea ohikoa izan daitekeelako likidezia eta fundazioak gastu operatiboetara aurre egiteko duen gaitasuna bermatzeko. Aktibo ez korrontearen osakerari dagokionez ekitaldi guztietan ibilgetu materiala talderik pisutsuena izan dela ikus dezakegu, zehazki “lursailak eta eraikinak” partida.


4.1.2. Egitura finantzarioa. Ondare Garbia eta Pasiboa

Finantzaketa-egiturari dagokionez Ondare garbia, Pasibo Ez Korrontea eta Pasibo Korrontea aztertzea beharrezkoa da, epe laburreko eta epe luzeko finantzaketa baita finantzaketa propioa, alegia. Ondare garbiak eta Pasiboak enpresaren finantzaketa-egitura aurkezten dizkigute. Agerian uzten du nola finantzatzen den enpresa, aktiboan gauzatutako funtsen jatorria. Inbertsioa besteren baliabideek edo baliabide propioek zein neurritan

finantzatzen duten eta bi masen osaera zein den erakusten du. Galdagarritasun-irizpidearen arabera aurkezten dira, ondare garbia eta pasiboa osatzen duten elementuak ordenatuta, txikienetik handienara. Beraz, behin hau esanda CODESPA Fundazioaren egitura finantzarioa aztertzeraz ekingo diogu.

Grafiko 2. CODESPA Fundazioaren egitura finantzarioa 2019-2022.

Iturria: Norberak egindakoa



CODESPA Fundazioan 2019tik 2022ra bitarteko egitura finantzarioan aldaketa nabarmenik eman ez dela ikus daiteke. Izan ere, urte guztietan kanpo finantzaketa guztira %85 inguru suposatu du eta barne finantzaketa, berriz, %15 inguru. Hortaz, argi ikus dezakegu CODESPA Fundazioa kanpo finantzaketara jotzen duela bere jarduerak finantzatzeko.

Taula 2. CODESPA Fundazioaren Ondare Garbia eta Pasiboa eta bere bilakaera 2019-2022 urte bitartean.

Iturria: Norberak egindakoa

OG ETA PASIBOA	2022				2021				2020			2019		
		B.E.	BH aurreko urtekoa	BH oinarri urtea		B.E.	BH aurreko urtekoa	BH oinarri urtea		B.E.	BH		B.E.	BH
A) ONDARE GARBIA	785.089	10,63%	90,56%	91,56%	866.902	13,50%	100,61%	101,10%	861.683	16,46%	100,49%	857.484	16,02%	100%
I. FONDO PROPIOAK	785.089	10,63%	90,56%	91,56%	866.902	13,50%	100,61%	101,10%	861.683	16,46%	100,49%	857.484	16,02%	
FUNDAZIO-ZUZKIDURA	1.206.532	16,34%	100%	100%	1.206.532	18,79%	100%	100%	1.206.532	23,04%	100%	1.206.532	22,54%	
ERRESERBAK	0	0%	0%	0%	969.351	15,09%	100%	100%	969.351	18,51%	100%	969.351	18,11%	
AURREKO EKITALDIKO EMAITZA	(339.630)	-4,60%	25,84%	25,41%	(1.314.200)	-20,46%	99,68%	98,32%	(1.318.399)	-25,18%	98,64%	(1.336.614)	-24,97%	
EKITALDIKO EMAITZA	(81.813)	-1,11%	-1567,60%	-449,15%	5.219	0,08%	124,29%	28,65%	4.199	0,08%	23,05%	18.215	0,34%	
B) PASIBO EZ KORRONTEA	92.021	1,25%	105,39%	79,73%	87.318	1,36%	104,75%	75,65%	83.356	1,59%	72,22%	115.417	2,16%	
I. EPE LUZERKO HORNIDURAK	92.021	1,25%	105,39%	79,73%	87.318	1,36%	104,75%	75,65%	83.356	1,59%	72,22%	115.417	2,16%	
Bestelako hornidurak	92.021	1,25%	105,39%	79,73%	87.318	1,36%	104,75%	75,65%	83.356	1,59%	72,22%	115.417	2,16%	
C) PASIBO KORRONTEA	6.508.167	88,12%	119,02%	148,62%	5.468.052	85,14%	127,44%	124,87%	4.290.736	81,95%	97,98%	4.379.075	81,82%	
I. EPE LABURREKO ZORRAK	4.609.425	62,41%	103,55%	133,52%	4.451.373	69,31%	145,49%	128,94%	3.059.510	58,43%	88,62%	3.452.345	64,51%	
II. ONURADUN HARTZEKODUNAK	1.461.355	19,79%	232,04%	212,73%	629.797	9,81%	75,98%	91,68%	828.853	15,83%	120,66%	686.961	12,84%	
III. HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINDU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK	110.253	1,49%	124,08%	107,70%	88.857	1,38%	79,20%	86,80%	112.194	2,14%	109,59%	102.375	1,91%	
Hainbat hartzekodun	48.562	0,66%	139,63%	90,09%	34.778	0,54%	71,38%	64,52%	48.725	0,93%	90,40%	53.902	1,01%	
Administrazio publikoekiko beste zor batzuk	61.691	0,84%	114,08%	127,27%	54.078	0,84%	85,20%	111,56%	63.469	1,21%	130,94%	48.473	0,91%	
IV. EPE LABURREKO PERIODIFIKATZEAK	327.134	4,43%	109,77%	238,10%	298.025	4,64%	102,70%	216,91%	290.179	5,54%	211,20%	137.394	2,57%	
ONDARE GARBIA ETA PASIBO TOTALA (A+B+C)	7.385.276	100%	114,99%	137,99%	6.422.272	100%	122,66%	120,00%	5.235.775	100%	97,83%	5.351.976	100%	100%

Dakigunez, ondare garbia enpresaren finantzaketaren parte da, zehazki finantzaketa propioa edo baliabide propioak, hau da, itzuli behar ez dena. Horregatik, ondare garbiari pasibo ez-galdagarri ere esaten zaio. Barne finantzaketaren osarari dagokionez, 2019an partidari garrantzitsuena “fundatze hornidura” zen 1.206.532 euroko zenbatekoarekin, finantzaketa-iturri guztiaren %22,54 suposatzen zuelarik. Fundatzen hornidura Banco Santanderren eta Banestoren dohaintzak eta “beste dohaintza batzuek” egindako diru-ekarpen ezeztazenez osatuta zegoen. Garrantzi gehien zuen hurrengo partida "erreserbak" izenekoak zen 969.351 euroekin eta %18,11ko pisuarekin. Ildo berean, “aurreko ekitaldiko emaitza” partidak -1.336.614ko zenbatekoa zuen (%24,97ko finantzaketa negatiboarekin totalarekiko). Aipatzekoa da “ekitaldiko emaitza” partidak %0,34ko pisua soilik izatea totalarekiko. Honen arrazoia da fundazioek ez dutela bilatzen beren diru-sarrerak maximizatzea beste merkataritza-enpresak bezala; are gehiago, diru-sarrera gehienak beren xedearekin eta helburuekin bat datozen proiektuak eta programak finantzatzeko erabiltzen dituzte. Fundazio honetan nabarmentzekoa da ekitaldiko emaitza aplikatzeko proposamena (Zuzendaritzak egin) zenbateko hau aurreko ekitaldietako soberakin negatiboari aplikatzean datza.

Kanpo finantzaketari dagokionez, epe laburreko finantzaketa epe luzekoaren gainetik gailentzen dela argi eta garbi dago. Hau esanda, epe luzeko hornidurak aztertuko ditugu. Enpresa honek epe luzeko kanpo finantzaketa eskasa erabiltzen duela ikusi dezakegu, hau baita epe luzera daukagun finantzaketa bakarra eta finantzaketa osoaren barruan, %2,16ko pisua zuen 2019an. Epe luzerako hornidurak Fundazioaren ustez dirulaguntza eman zuen erakundearen justifikazioan gorabeherak izan ditzaketen proiektuetarako hornidurari

dagozkio, bai eta proiektuaren amaierako berrikuspen orokorrean atzemandakoei ere. Hornidura hauek jardueraren beste gastu batzuen kargura hornitu ziren.

Jarraian, epe laburreko finantzaketan jarriko dugu arreta. Honetan, partidarik garrantzitsuena epe laburreko zorrak ziren 3.452.345ko zenbatekoarekin eta %64,51ko finantzaketa pisuarekin totalarekiko. Epe laburreko zorren epigrafean, funtsean, dagoeneko kobratuta dauden eta itzulgarriak diren dirulaguntzen saldoa jasotzen da. Ildo berean, garrantzia duen beste partida bat "onuradun hartzekodunena" da, finantzaketa guztiaren %12,84 suposatzen baitu, 686.961ko zenbatekoarekin. Honetan, tokiko bazkideen kontu korranteetara eta CODESPAren ordezkarietara transferitutako zenbatekoa jasotzen da, Fundazioaren jarduerarako justifikatzeke dagoena.

Arestian aipatu dugun moduan, finantzaketa egiturak ekitaldiz ekitaldi izan dituen aldaketak aztertzek balio horizontalak erabiliko ditugu, oinarri urtearekiko bai aurreko urtearekiko egon diren aldaketak ikusteko. Beraz, behin hau esanda, hurrengo ekitaldietan finantza egituran egon diren aldaketak aztertzeari ekingo diogu.

Aztertzen ari garen urte tartean (2019-2022) barne-finantzaketaren aldaketa negatiboa izan zela ikus dezakegu, %9,44koa zehazki, 861.683 eurotik 785.089 eurora pasatuz. Aldaketa hauek, batez ere, erreserben guztizko murrizketari eta ekitaldiko emaitzaren beherapenari atxiki daitezke. Erreserben guztizko beherapena Fundazioei buruzko 50/2002 Legearen 27. artikuluan eta irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgorako zerga-pizgarriei buruzko 49/2002 Legearen 3. artikuluan ondorio da; izan ere, artikulua horretan esaten denez, errenta eta diru-sarrera garbien %70, gutxienez, fundazio-helburuetara bideratu beharko da bost urteko epean, lortu diren ekitaldia bera barne, eta gainerakoa fundazioaren zuzkidura edo erreserbak handitzeko erabili beharko da. Fundazioak 2021eko ekitaldian fundazioaren helburuetara bideratutako zenbatekoen ehunekoa zehaztu zuen, azaroaren 11ko 1337/2005 Errege Dekretuak onartutako Estatuko Eskumenen Fundazioen Erregelamenduaren 32. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, eta 2020ko ehunekoa ezarritako %70etik gorakoa zen. 2022. urtea baino lehenagoko azken lau ekitaldietan bezala. Horregatik, CODESPA Fundazioak 2022. urtean, onartu zuen 2021eko erreserba metatuen zenbatekoa eta ekitaldiko emaitza aplikatzea, 2021eko abenduaren 31n metatutako galerak konpentsatzeko.

Halaber, nabarmentzekoa da barne finantzaketan partidarik garrantzitsuena “fundatze hornidura” izaten jarraitzen zuela. Partida honen zenbatekoa urteetan zehar konstante mantendu izan arren, haren finantzaketa-pisua aldatu egin zen, eta 2020an %23,04ko pisua izan zuen, 2021ean %18,79koa eta 2022an %16,34koa.

Epe luzeko kanpoko finantzaketari dagokionez, kopuru hau handituz eta murriztuz joan da urteetan zehar, eta, hala, 2020an finantzaketa %27,78 murriztu zen aurreko urtearekin alderatuta, 2021ean %4an handitu zen aurreko urtearekin alderatuta, eta, 2022an berriro ere handitu zen %5,39an aurreko urtearekiko baina oinarri-urtearekin alderatuta %20,27ko aldakuntza negatiboa mantentzen zen. Hala ere, nahiz eta 2021ean eta 2022an zenbatekoa handitu, finantzaketa pisua behera egin zuen, %1,36ko eta %1,25ko pisua zuelarik, hurrenez hurren.

Amaitzeko, epe laburreko finantzaketari dagokionez, aztertzen ari garen urte tartetean aldaketa %48,62koa izan zen, 4.379.075 eurotik 6.508.167 eurora izatera helduz. Honen arrazoi “epe laburreko zorren” eta “onuradun hartzekodunaren” partiden hazkundearen atzean dago. Epe laburrean finantzaketa pisu gehien zuen partidak “epe laburreko zorrak” izaten jarraitzen zuen, izan ere, 2020an %58,43koa zen; 2021n %69,31koa (aurreko urtearekiko %45eko hazkundera izan zuelarik 4.451.373 euroko zenbatekora ailegatuz) eta 2022an %62,41ekoa (urte honetan ere zenbatekoa %3an ere handitu zuelarik aurreko urtearekiko eta %33,52an oinarri urtearekiko). Halaber, garrantzia duen beste partida bat jada aipatu dugun moduan epe laburraren finantzaketaren hazkundearen atzean dagoena, “onuradun hartzekodunak” partida da, hots, 2020an %15,82ko pisua zuen 828.853 zenbatekoarekin; 2021ean zenbatekoa %8,32an murriztu zen 629.797koa izanik (%9,81ko finantzaketa pisuarekin) eta 2022an %132,04ko hazkundera egon zen zenbatekoan aurreko urtearekiko, %19,79ko finantzaketa pisua lortu zuelarik.

Beraz, analisisa eginda ondoriozta dezakegu 4 ekitaldietan finantzaketa egitura ere oso antzekoa izan dela. Hots, 4 urteetan askoz gehiago finantzatzen dela kanpotik baliabide propioetatik baino, epe laburreko finantzaketa epe luzekoa baino askoz handiagoa izanik. Baliabide propioei dagokionez, 4 urteetan “fundatze hornidura” partida izan da garrantzitsuena. Nabarmentzekoa da 2022. urtean erreserben partidaren guztizko murrizketa eman zela ondare garbiaren %9ren murrizketa ekarri zuelarik. Epe laburreko finantzaketari


dagokionez, partidarik garrantzitsuena urte guztietan “epe laburreko zorrak” izan dela ikus dezakegu.

4.1.3. Ekitaldiko emaitza. Bilakaera eta egitura

Enpresa baten hazkundera, neurri handi batean, zuzenean edo zeharka, ondorengo ekitaldietan egindako jardueraren emaitza ekonomikoaren mende dago. Enpresaren oinarrizko finantzaketa-egitura eratu ondoren, inbertsio-egitura baldintza normaletan egin ahal izateko, inbertsio-egitura horren hazkundera, finantzaketaren oinarrizko zutabe gisa, enpresa-jardueraren garapenean emaitza positiboak sortzean eta jarduera horren jabeek enpresaren zati bat erreserba gisa mantentzeko erabakian oinarritu behar da. Ekitaldi jakin bateko emaitza ekonomikoak, galdu-irabazien kontuan islatuta, enpresak kudeatutako politiken eraginak enpresaren ondare garbian izandako azken eragina erakusten du.

Grafiko 3. CODESPA Fundazioaren ekitaldiko emaitzaren analisia eta eboluzioa 2019-2022.

Iturria: Norberak egindakoa



Grafikoan ikus daitekenez, ekitaldiko emaitzaren jaitsiera ustiapeneko emaitzaren murrizketaren ondorioa da, izan ere, ustiapeneko emaitzak 2022 urtean oinarri urtearekiko %325,84ko murrizketa izan zuen 19.212 izatetik -81.813€ izatera pasatuz.

Taula 3. CODESPA Fundazioaren ekitaldiko emaitzaren analisia 2019-2022 urte bitartean.


Iturria: Norberak egindakoa

GALDU IRABAZIEN KONTUA	2022			2021			2020		2019					
	B.E.	BH aurreko urtekoa	BH oinarri urtea	B.E.	BH aurreko urtekoa	BH oinarri urtea	B.E.	BH	B.E.	BH				
A) ERAGIKETA JARRAITUAK														
I. Aktibitate propioaren diru sarrerak	5.964.996	100%	104,94%	129,14%	5.684.302	100%	119,36%	123,06%	4.762.251	100%	103,10%	4.618.975	100%	100%
a) Bazkiden eta afiliatuen kuota	418.869	7,02%	101,98%	62,09%	410.741	7,23%	89,21%	60,89%	460.406	9,67%	68,25%	674.604	14,61%	
b) Sustapenen, babesleen eta kolaborazioen diru-sarrerak	12.913	0,22%	54,36%	62,08%	23.755	0,42%	362,73%	114,20%	6.549	0,14%	31,48%	20.802	0,45%	
c) Ekitaldiko emaitzari egotzitako dirulaguntzak	4.477.897	75,07%	125,40%	190,72%	3.570.789	62,82%	114,99%	152,09%	3.105.178	65,20%	132,26%	2.347.848	50,83%	
d) Ekitaldiko emaitzari egotzitako dohaintzak eta legatuak	1.055.317	17,69%	62,85%	66,97%	1.679.017	29,54%	141,08%	106,56%	1.190.118	24,99%	75,53%	1.575.722	34,11%	
e) Laguntzen eta esleipenen itzulera														
II. Laguntzengatiko gastuak eta bestelakoak	(5.138.717)	-86,15%	105,47%	139,63%	(4.872.176)	-85,71%	122,61%	132,38%	(3.973.840)	-83,44%	107,97%	(3.680.356)	-79,68%	
a) Diru-laguntzak	(5.044.260)	-84,56%	108,11%	146,97%	(4.665.974)	-82,09%	121,38%	135,95%	(3.844.221)	-80,72%	112,01%	(3.432.075)	-74,30%	
b) Lankidetzengatiko gastuak	(94.457)	-1,58%	45,81%	38,04%	(206.202)	-3,63%	159,08%	83,05%	(129.619)	-2,72%	52,21%	(248.282)	-5,38%	
c) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak itzultzea														
III. Pertsonal gastuak	(680.334)	-11,41%	108,38%	104,66%	(627.734)	-11,04%	105,34%	96,57%	(595.939)	-12,51%	91,67%	(650.063)	-14,07%	
a) Lansariak, soldata eta antzekoak	(531.924)	-8,92%	108,76%	104,02%	(489.087)	-8,60%	104,68%	95,65%	(467.239)	-9,81%	91,37%	(511.356)	-11,07%	
b) Gizarte kargak	(148.410)	-2,49%	107,04%	107,00%	(138.647)	-2,44%	107,73%	99,96%	(128.700)	-2,70%	92,79%	(138.707)	-3,00%	
IV. Bestelako ustiapen gastuak	(184.656)	-3,10%	138,53%	83,45%	(133.300)	-2,35%	95,10%	60,24%	(140.171)	-2,94%	63,35%	(221.267)	-4,79%	
a) Kanpoko zerbitzuak	(179.230)	-3,00%	134,85%	93,69%	(132.906)	-2,34%	102,44%	69,47%	(129.739)	-2,72%	67,82%	(191.305)	-4,14%	
b) Tributuak	(426)	-0,01%	108,12%	21,61%	(394)	-0,01%	91,20%	19,99%	(432)	-0,01%	21,92%	(1.971)	-0,04%	
c) Galerak, nardiadura eta horniduren aldakuntza merkatariza-eragiketengatik	(5.000)	-0,08%		17,86%	0	0,00%	0,00%	0,00%	(10.000)	-0,21%	35,73%	(27.991)	-0,61%	
d) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak														
V. Ibilgetuaren amortizazioa	(53.103)	-0,89%	107,32%	110,46%	(49.483)	-0,87%	112,30%	102,93%	(44.063)	-0,93%	91,65%	(48.076)	-1,04%	
VI. Hornidura soberakinak	10.000	0,17%	152,91%		6.540	0,12%			0	0,00%		0	0,00%	
VII. Ibilgetuaren nardiadura eta inorenganatzegatik emaitzak	0	0,00%	0,00%		(352)	-0,01%			0	0,00%		0	0,00%	
A.1) USTIAPENEN EMAITZA	(81.813)	-1,37%	-1049,29%	-425,84%	7.797	0,14%	94,65%	40,58%	8.238	0,17%	42,88%	19.212	0,42%	
VIII. Sarrera finantziarioak	0	0,00%	0,00%		2.775	0,05%			0	0,00%		0	0,00%	
a) Balio negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak	0	0,00%	0,00%		2.775	0,05%			0	0,00%		0	0,00%	
IX. Gastu finantziarioak	0	0,00%	0,00%	0,00%	(4.594)	-0,08%	113,46%	460,78%	(4.049)	-0,09%	406,12%	(997)	-0,02%	
a) Zorrek hiru gurenekin	0	0,00%	0,00%	0,00%	(4.594)	-0,08%	113,46%	460,78%	(4.049)	-0,09%	406,12%	(997)	-0,02%	
X. Kanbio-diferentziak	0	0,00%	0,00%		(758)	-0,01%	-7580,00%		10	0,00%		0	0,00%	
A.2) FINANTZA EMAITZA	0	0,00%	0,00%	0,00%	(2.577)	-0,05%	63,80%	258,48%	(4.039)	-0,08%	405,12%	(997)	-0,02%	
A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA	(81.813)	-1,37%	-1567,60%	-449,15%	5.219	0,09%	124,29%	28,65%	4.199	0,09%	23,05%	18.215	0,39%	
XI. Mozkinen gaineko zerga														
A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN EKITALDIKO EMAITZA	(81.813)	-1,37%	-1567,60%	-449,15%	5.219	0,09%	124,29%	28,65%	4.199	0,09%	23,05%	18.215	0,39%	
B) ERAGIKETA EZ JARRAITUAK														
A.5) EKITALDIKO EMAITZA	(81.813)	-1,37%	-1567,60%	-449,15%	5.219	0,09%	124,29%	28,65%	4.199	0,09%	23,05%	18.215	0,39%	

Ustiapeneko emaitzari dagokionez, “aktibitate propioaren diru sarrerak” taldeak hazkunde nabarmena izan zuela ikus dezakegu, hots, partida honen zenbatekoa gora egin zuten ekitaldietan zehar 4.618.975€ izatetik 5.964.996€ izatera ailegatuz. Hala, 2020. urtean zenbatekoa %3,10an handitu zen aurreko urtearekiko, 2021ean %19,36an aurreko urtearekiko eta 2022an %4,94an aurreko urtearekiko eta %29,14an oinarri urtearekiko. CODESPA Fundazioaren diru-sarreraren artean, pisurik handiena dirulaguntzek dutela ikus dezakegu. Hala, 2019an erakundearen diru-sarrera guztien %50,83ko pisua zuten 2.347.848 zenbatekoarekin eta 2022an %75,07ko pisua 4.477.897 zenbatekoarekin, %90,72ko hazkundearekin oinarri-urtearekin alderatuta.

Grafiko 4. CODESPA Fundazioaren aktibitate propioaren diru sarreraren kopurua 2019-2022.

Iturria: Norberak egindakoa



Urte hauetan diru-sarrerek gora egin zuten bezala, gastuak ez ziren atzean geratu eta hazkundera ere jasan zuten. Beraz, gastuei dagokionez, “laguntzengatiko gastuak eta bestelakoak” partida zen ustiapeneko emaitzan pisu handiena zuen gastua. Partida hau 2019an %79,68ko pisua zuen 3.680.356ko zenbatekoarekin, 2020an zenbatekoa %7,97an handitu zen aurreko urtearekiko 3.973.840 zenbatekoa lortuz %83,44ko pisuarekin. 2021n zenbatekoa 4.872.176 zen, %22,61an handitu zelarik aurreko urtearekiko eta %85,71ko pisua zuelarik. Azkenik, 2022an berriro ere handitu zen zenbatekoa %5,47an aurreko urtearekiko, 5.138.717 zenbatekoa lortuz (%39,63an handitu zen oinarri urtearekiko) eta %86,15ko pisua lortuz totalarekiko. CODESPA Fundazioaren gainerako gastu garrantzitsuenei dagokienez: “pertsonal gastuak” eta “bestelako ustiapen gastuak” partidak aurki ditzakegu. “Pertsonal gastuak” partidak ekitaldietan zehar gora egin zuen bitartean (2022an %4,66an handitu zen oinarri urtearekiko, 650.063 izatetik 680.334 izatera ailegatuz), “bestelako ustiapen gastuak” partida murriztu egin zen 221.267 zenbatekotik 184.656 zenbatekora pasatuz (oinarri urtearekiko 2022an %16,55an murriztuz).

Ildo honetan, ikus dezakegu orokorrean gastuak gehiago hazi zirela sarrerek baino 2019-2022 urte bitartean, beraz, aurretik aipatutako ustiapeneko emaitzaren murrizketa honen ondorioa da.

Jarraian, ekitaldiko emaitzan eragina duen emaitza finantzarioa aztertzeraz ekingo diogu. Honetan, emaitza finantzario negatiboa izatetik nulua izatera pasa zen. 2019an, emaitza finantzarioa -997€koa zen (%0,02ko pisua suposatzen zuelarik), izan ere, fundazioak zorrak zituen hirugarrenetik, eta ez zuen inolako diru-sarrera finantzariorik. 2020an, egoera

larriagotu egin zen (pandemia-faktorea kontuan hartu behar dugu); izan ere, gastu finantzarioak %306,12an handitu ziren 4.049€ zenbatekoarekin (%0,08ko pisuarekin), inolako diru-sarrera finantzariorik gabe. 2021ean, egoera hobea izan zen nahiz eta 2.577 €-ko emaitza finantzario negatiboa izan (izan ere, emaitz finantzarioa %36,20an handitu zen). Urte hartan 2.775 €-ko diru-sarrera finantzarioa lortu zen (%0,05ko pisuarekin), baina gastu finantzarioa (4.594ko zenbatekoarekin eta %0,08ko pisuarekin totalarekiko) eta kanbio diferentzia gastua (758ko zenbatekoarekin eta %0,01eko pisuarekin totalarekiko) handitu ziren %13,46an eta %7480an, hurrenez hurren. 2022an egoerak hobera egin zuen, ez baitzen finantza-eragiketarik galdu edo irabazi. Hortaz, esan genezake emaitza finantzarioaren “hazkundera” hirugarrenetikiko zorren murrizketari atxikitzen zaiola.

Hortaz, ondoriozta dezakegu CODESPA Fundazioaren ekitaldiko emaitzaren murrizketa ustiapeneko emaitzaren murrizketari dagokiola.

4.2. Politiken analisisia

Emaitza sortzen laguntzen duten aldagaien bilakaeraren arrazoiak ulertu eta zehatzago azaldu ahal izateko, fundazioak kudeatzen dituen politiken zenbait alderdiren azterketan sakontzera ekingo diogu:

4.2.1. Ibilgetuaren kudeaketa politika

Politika honen bitartez, fundazioaren ibilgetu materiala zein ehunekotan amortizatuta dagoen aztertuko dugu baita amortizazio-erritmoa ere.

Taula 4. CODESPA Fundazioaren ibilgetuaren kudeaketa politikaren ratioen kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Iturria: Norberak egindakoa

IBILGETU KUDEAKETA POLITIKA								
	2022		2021		2020		2019	
Amortizazio Maila	615.436	67,78%	594.355	66,72%	569.718	65,32%	543.266	63,29%
	907.993		890.765		872.219		858.326	
Amortizazio Erritmoa	21.081	2,32%	24.638	2,77%	26.451	3,03%	28.267	3,29%
	907.993		890.765		872.219		858.326	
Amortizazio Erritmoa (urtea)	292.557	13,88	296.409	12,03	302.501	11,44	315.059	11,15
	21.081		24.638		26.451		28.267	

Fundazioaren ibilgetu materiala, 2019an, %63an amortizatuta zegoen; erdia baino gehiago amortizatuta dagoen ibilgetu bat izanik. Agerikoaenez, urtero gehiago amortizatu da, eta 2029-2022 urte tartean %7 handitu da amortizazioa, 2022an %68 amortizatuta zegoelarik. Beraz, % 60 baino gehiago amortizatu dagoenez eta poliki-poliki %70era heltzen dagoenez, ibilgetua nahiko zaharra dela erakusten digu .

Lehenengo bi urteetan urteko erritmo konstantea %3ko ingurukoa zen eta azken bi urteetan amortizazio erritmoa txikitu zen %2,5ko ingurukoa izanik. Amortizazio-erritmoak, urtero pixka bat txikitu da (beheranzko joera) baina %3 inguruko joerari eusten diola esan genezake; beraz, fundazio horren amortizazio-politikan gorabehera handirik ikusten ez dugula ere esan dezakegu, hots, fundazioak ez duela amortizazio gastuarekin jolasten.

Bestalde, hasiera batean, ikus dezakegunez fundazioak 11-12 urte inguruan amortizatuko zuen bere ibilgetu osoa, baina 2022ko ekitaldian bere ibilgetua amortizatzen amaitzeko aurreikusitako denbora 13,88 urtera igo zen. Honen arrazoia da ibilgetuaren amortizazio erritmoa gero eta motelagoa dela, amortizatzen amaitzeko urte gehiago behar direlarik.

4.2.2. Pertsonalari buruzko politika

Pertsonal-politikak langile-gastuen bidez emaitzan duen eragina aztertzeko, honako hiru ratio hauek eraiki ditzakegu aztergai den ekitaldi bakoitzerako. Ratioak hurrengoak dira: aktibitate propioaren diru sarrerak/langile kopurua, aktibitate propioaren diru sarrerak/pertsonal gastuak eta pertsonal gastuak/langile kopurua.

Taula 5. CODESPA Fundazioaren pertsonal politikaren ratioen kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Iturria: Norberak egindakoa

	PERTSONAL POLITIKA			
	2022	2021	2020	2019
Aktibitate propioaren diru sarrerak / Langile kopurua	48.893,41	73.822,10	51.207,00	57.024,38
Aktibitate propioaren diru sarrerak / Pertsonal gastuak	8,77	9,06	7,99	7,11
Pertsonal gastuak / Langile kopurua	5.576,51	8.152,39	6.407,95	8.025,47

Lehenengo ratioari dagokionez, langile bakoitzeko aktibitate propioaren diru-sarrereren bolumena erakusten digu moneta-unitatetan. Ratio hau handitzen bada, fundazioaren produktibitatea handitzen da eta ez langilearen produktibitatea. Beraz, hau esanda, ikus dezakegu 2019an langile bakoitzeko 57.024,38€ko aktibitate propioaren diru-sarrereren bolumena lortu dela. Hurrengo urteetan igoerak eta jaitsierak egin ziren, hots, 2020an murriztu egin zen aktibitate propioaren diru-sarrereren bolumena, eta, beraz, produktibitatea jaitsi egin zen. 2021ean, ordea, produktibitatea handitu zen, eta 2022an berriz jaitsi.

Bigarren ratioak erakusten digu enpresak langileen gastuei aurre egiteko erabiltzen dituen 100 unitate monetarioetatik, zenbat unitate monetario lortzen dituen aktibitate propioaren diru sarreratik. Bigarren ratio hau handitzen bada, enpresaren produktibitateak gora egin du. Hortaz, CODESPA Fundazioak 2019an 7,11€ irabazten zituen pertsonal gastuan inbertitzen ziren 100 euro bakoitzeko. 2019tik 2021era bilakaera positiboa egon zela, hots, enpresaren produktibitateak gora egin zuela ondoriozta dezakegu, izan ere, 2019an 7,11€ irabaztetik 9,06€ irabaztera pasatu zen. 2022an produktibitatea behera egin zuen, 8,77€ irabazten zuelarik pertsonal gastuan inbertitzen ziren 100 euro bakoitzeko.

Hirugarren ratioari dagokionez, fundazioko langile bakoitzeko batez besteko langile-kostua erakusten digu, moneta-unitateen arabera. Ratio honek ez du adierazten langileen batez besteko soldata, baizik eta langile bakoitzak enpresari batez beste kostatzen zaiona. Honen aurrean eta taulari erreparatuz gero ikus dezakegu 2019an langile bakoitzak batz best 8.025,47€ kostatzen zitzaioela CODESPARI. 2020an, gastua behera egin zuen 6.407,95€ko gastua izanik. 2021. urtean gastua berriz ere gora egin zuen eta 2022an berriro ere murriztu.

Horren aurrean, ondorio argirik atera ezin dugularen ustean gaude, urte bakoitzean emaitza desberdina izan baita. Hala eta guztiz ere, argitu behar dugu fundazio baten helburu nagusia ez dela ahalik eta produktibitate handiena lortzea, ez duelako helburu nagusizat irabaziak sortzea. Are gehiago, fundazioek finantza-soberakinak berrinbertitzen dituzte beren programa eta jardueretan, laguntzeko eginkizuna betetzeko. Haren egitura eta eragiketa arrazoi sozialak eta komunitarioak laguntzeko eta sustatzeko diseinatuta daude, diru-sarrerak edo onura ekonomikoak sortu beharrean. Gainera, denok dakigunez, fundazioak dohaintzen, dirulaguntzen eta funts pribatuen bidez finantzatzen dira, eta, beraz, urte bakoitzeko

produktibitatea, neurri handi batean, gauzatuko dituen programen (adibidez, langile gehiago edo gutxiago beharko dituen) eta horretarako urtero lortzen duen diruaren mende dago.

4.3. Likidezia

4.3.1. Errotazio Fondoa eta aldakuntzaren zergatiaren analisisa

Errotazio Fondoa, Finantza Segurtasuneko Marjina da, eta enpresak bere kapital iraunkorren zati batekin, epe luzerako finantzaketarekin eta epe laburreko inbertsioen zati bat finantzatzeko erabiltzen du. Enpresak nolabaiteko finantza-egonkortasuna lortu nahi du, jakinda bere kostua, agian, finantza-gastu handiagoa jasatea dela. Hots, Errotazio Fondoa epe luzeko inbertsioak finantzatzeko erabili ez den epe luzeko kapitalen zenbatekoa da, eta, beraz, epe laburreko inbertsioak finantzatzeko erabiltzen dena. Honen kalkulua epe luzeko zikloaren eta epe laburreko zikloaren ikuspegitik egin daiteke.

Taula 6. CODESPA Fundazioaren epe laburreko Errotazio Fondoaren kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Iturria: Norberak egindakoa

	Aktibo Korrontea	(-)	Pasibo Korrontea	EF
2022ko EF	6.981.332	(-)	6.508.167	473.165
2021eko EF	5.983.829	(-)	5.468.052	515.777
2020ko EF	4.819.013	(-)	4.290.736	528.277
2019ko EF	4.996.906	(-)	4.379.075	617.831

Taula 7. CODESPA Fundazioaren epe luzeko Errotazio Fondoaren kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Iturria: Norberak egindakoa

	Kapital iraunkorrak	(-)	Ibilgetu garbia	EF
2022ko EF	877.110	(-)	403.943	473.167
2021eko EF	954.220	(-)	438.443	515.777
2020ko EF	945.039	(-)	416.762	528.277
2019ko EF	972.901	(-)	355.070	617.831

Beraz, 4 ekitaldietan (2019, 2020, 2021 eta 2022) Errotazio Fondoak positiboak izan dira, hots, aktibo korrontea pasibo korrontea baino handiagoa izan da. Honek zera esan nahi du: epe laburreko inbertsioa epe laburreko finantzaketa baino handiagoa da, eta ondorioz, enpresa hau behar finantzario baten aurrean dago, eta beraz, epe luzeko finantzaketa erabili beharko du epe laburreko inbertsio horiek estaltzeko. Hitz gutxitan esanda, epe luzeak epe laburrari lagunduko dio. CODESPA 2022 urtean epe luzeko kapitalaren 473.167€ erabiltzen zituen epe laburreko inbertsioak finantzatzeko. Nabarmentzekoa da, taulari men eginez, Errotazio Fondoaren zenbatekoa murriztuz joan dela urteak pasa ahala, eta honek, segurtasun marjina gutxitzea eragin du.

4.3.2. Kaudimena eta likidezia

I. Epe laburreko kaudimena eta likidezia

Atal honen azterketa hasi baino lehen bi kontzeptu hauek azalduko ditugu. Likidezia aktibo batek berehala efektiboan bihurtzeko duen gaitasuna da bere balioaren galera esanguratsua jasan gabe. Era berean, enpresa batek epe laburrean kaudimena duela esango dugu epe laburrean nahiko aktibo dituenen bere epe laburreko zorrei aurre egiteko. Honen helburua, finantzaketa eredu eta inbertsio eredu hobea ezagutzea da baita enpresa epe laburrean kaudimendun den eta enpresa oreka finantzarioan dagoen jakitea ere.

Analisi hau aurrera eramateko hurrengoko 3 ratioak erabiliko ditugu: epe laburreko kaudimen ratioa, likidezia ratioa eta erabilgarritasun ratioa.


Taula 8. CODESPA Fundazioaren epe laburreko kaudimen ratioen kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Iturria: Norberak egindakoa

	2022	2021	2020	2019
Epe laburreko kaudimen ratioa	1,073	1,094	1,123	1,141
Likidezia ratioa	1,073	1,094	1,123	1,141
Erabilgarritasun ratioa	0,920	0,985	0,883	0,928

Grafiko 5. CODESPA Fundazioaren epe laburreko kaudimen ratioen eboluzioa 2019-2022.

Iturria: Norberak egindakoa



Epe laburreko kaudimenari dagokionez, epe laburreko zorren 100 moneta unitate bakoitzeko zenbat ondasun eta eskubide dituen epe laburrean beraiei aurre egiteko erakusten digu. Ratio honen emaitza bat baino handiagoa bada, fundazioa kaudimenduna izango da, hots, epe laburreko zorrei aurre egiteko epe laburreko nahiko ondasun eta eskubide izango ditu. Aldiz, bat baino txikiagoa bada, enpresa kaudimengabea da, ordainketa etendura tekniko batean egongo da. Honek esan nahi du hartzekodun guztiak momentu berean beraien zorra kobratu nahiko balute fundazioak ezin izango lieke ordaindu. Baina hartzekodun guztiak ez dira aldi berean kobratzera joango, hortaz, fundazioak kobro eta ordainketa politika egokiak jarraitzen baditu, ez dauka zertar arazorik izan beharrik. Orokorrean, ratio honen balio optimoa 1,8 eta 2 tartean dago.

Beraz, behin hau esanda ikus dezakegu CODESPA fundazioa kaudimenduna dela lau ekitaldietan, izan ere, ratioaren balio urte guztietan bat baino handiagoa izan da. Ratioaren baliorik altuena 2019an erregistratu zen, 1,141eko kaudimen-ratioa zuelarik. Honek esan nahi du epe laburreko 100 euroko zor eta obligazio bakoitzetik 114,1 euro dituela aktibo zirkulatzailerik garbietan, pasibo horien galdagarritasunari aurre egin ahal izateko. Hala ere, urteak pasa ahala kaudimenak okerrera egin zuen eta 2022an ia kaudimengabea izatera iritsi zen. Esan bezala, epe laburreko kaudimen ratio okerrera egin zuen 2020an, 1,123ko ratio izan zuelarik, 2021ean 1,094ko ratioa eta 2022an 1,073ko ratioa. CODESPA Fundazioaren epe

laburreko kaudimenaren balioen murrizketa ekitaldietan zehar epe laburreko zorrak inbertsioak baino proportzionalki gehiago hazi direlaren atzean dago.

Ildo honetan, ikus dezakegu urte bakar batean ere balioak balio optimora iritsi ez direla ikus dezakegu, hots, balioak 1,5-2 tartean ez daudela. Are gehiago, urtero 1 baliora gehiago hurbildu da (azken urteetan balio oso justuak izan ziren) eta hau arazo bat izan leike. Beraz, honek erakusten digu enpresa kaudimenduna dela eta epe laburreko zorrak ordain ditzakeela, baina segurtasun-koltxoi txikiagoa duela. Hots, berehalako arazoei aurre egin ez arren, finantza-egoera ahulagoan egon liteke kontingentziak edo ezustekoak gertatuz gero.

Likidezia ratioari dagokionez, ratio honek enpresaren likidezia-posizioa erakusten du. Honen bitartez, epe laburreko zorren 100 moneta unitate bakoitzeko likidezian oso azkar bihurtu daitezken zenbat ondasun eta eskubide ditugu beraiei aurre egiteko. Gainera, likidezia, salmenta eta izakinak berreskuratzeko arazoren bat detektatzeko aukera ematen du. Ondorio horietarako, zirkulatzaitetik likido bihurtzen gehien tardatuko duen partida kenduko dugu, haren balioaren aldakuntzan aldaketa esanguratsuren bat behatzeko, epe laburreko kaudimen-ratioaren aldean. Interpretazioari dagokionez, ikuspuntu teorikotik, balio optimoa $[0,8, 1]$ tartean kokatzen da.

Gure kasuan, lehen aipatu dugun bezala, fundazio baten aurrean gaude eta beraz, logikoki ez dago izakin partidarik. Hortaz, ratio honen balioak epe laburreko kaudimen-ratioaren berdina izango dira. Fundazioaren likidezia ratioaren balioak aztertuz gero, ikus dezakegu 4 ekitaldietan, likidezia balio optimoaren gainetik dagoela, hots, balioak 1 baino handiagoak dira. 2019an, fundazioak epe laburreko zorren 100 moneta unitate bakoitzeko, likidezian oso azkar bihurtu daitezken 114,1 moneta unitate dituela. Ratio honen bilakaera negatiboa izan da, izan ere, ratio honen balioa 2019an 1,141koa zen, 2020an 1,123koa, 2021ean 1,094koa eta 2022an 1,073koa. Likidezia handia eskuragarriaren zenbateko handiaren atzean dago eta honen arrazoia da fundazioaren helburua etengabe aktibitate berriak egitea dela hirugarrena laguntzarren baita gastu operatiboak estaltzeko funts erabilgarriak izatea ere.

Erabilgarritasun ratioari dagokionez, ratio honek fundazioak bere aktibo likidoenak soilik erabiliz epe laburreko obligazioak ordaintzeko duen gaitasuna erakusten du, Interpretazioari dagokionez, ikuspuntu teorikotik, ratio honek 0,1 izan behar duela esaten da.

Hau da, epe laburrean ordaindu beharreko 100 zor-unitate eta obligazioetatik, enpresak, batez beste, 10 moneta-unitate gorde behar ditu diruzaintzan, erabilgarri. CODESPA Fundazioaren ratio honen balioak aztertuz gero, ikus dezakegu 4 ekitaldietan balioak optimoaren dezente gaineratik kokatzen direla. 2019an balioa 0,928koa zen (balio optimoa baino 9 aldiz handiagoa), hots, 2019an epe laburrean zituen zorren 100 euro bakoitzeko 92,8 euro zituen horiei aurre egiteko diruzaintzan. 2020an nahiz eta balioa murriztu (diruzaintzaren zenbatekoa %7an txikitu zen aurreko urtearekiko) balio optimoaren gaineratik mantentzen zen. 2021ean eta 2022an ratio honen balioak 0,985 eta 0,920 izan ziren, hurrenez hurren.

Ratio honen hain balio handiak izatea ez da harriztekoa, diruzaintza partidak inbertsio guztiaren %80a suposatzen baitu. Gainera, aipatzeko modukoa da likidezia ratioetik erabilgarritasun ratioa ziurra soilik kentzen dugula eta argi ikus dezakegu ez duela garrantzi handirik fundazioan ratioa oso gutxi murrizten baita.

Hortaz, behin epe laburreko kaudimen eta likidezia ratioak aztertuta eta atal honi amaiera emanez, hiru ratioen irakurketa bateratua eginez gero, CODESPA Fundazioa 4 ekitaldietan zehar kaudimenduna izan dela esan dezakegu, hots, epe laburreko zorrei epe laburreko inbertsioekin aurre egiteko gaitasuna duela. Hau likidezia-ratioaren eta erabilgarritasun-ratioaren balioek berresten dute; izan ere, balio optimoaren gaineratik dauden balioek diruzaintzan zenbateko handia dagoela erakusten digute. Fundazioaren balio altu hauen arrazoia izan daiteke jasotako funtsak aldi baterako inbertitzen dituela laguntza eman zeneko helburu espezifikorako erabili nahi dituen bitartean. Hala ere, hain ratio altu hauek "arazo" izan daitezke fundazioarentzat, izan ere, epe laburrerako ordainketa bat egiteko betebeharrari lotuta ez badago, aukera kostua ekar diezaioke fundazioari, diruzaintzan behar baino diru gehiago duelako.

Nabarmentzekoa da, CODESPA Fundazioaren aktibo zirkulatzailerako partidarik garrantzitsuena diferentzia handiarekin diruzaintza dela, honelako entitateetan normala izan daitekeena. Beraz, kasu honetan, esan dezakegu epe laburreko kaudimenaren analisiak ez digula informazio askorik ematen likido bihurtzen tardatzen duten partidak ia ez daudelako.

II. Kaudimen totala

Kaudimen totala, enpresa batek bere aktiboen likideziarekin bere zorren eta betebeharren galagarritasunari aurre egiteko duen gaitasuna erakusten digu, enpresaren

ohiko funtzionamenduan arazorik sortu gabe. Honen bitartez, finantzaketa eredia eta inbertsio eredia ezagutu dezakegu eta fundazio kaudimenduna den eta oreka finantzarioan dagoen jakin dezakegu.

Erabiliko dugun funtsezko tresna kaudimen totalaren ratioa da. Ratio honek enpresaren hedapen-gaitasunari buruzko adierazle bat ematen du eta hartzekodunentzako segurtasun-indize bat adierazten du. Hala, honek erakusten digu enpresak dituen zor eta obligazioen moneta-unitate bakoitzeko zenbat moneta-unitate inbertitu dituen aktiboetan zor eta obligazio horiek mugaeguneratzean ordaintzeari aurre egiteko. Ratioak 2 baino balio handiagoa badu, enpresak oso kaudimenduna dela esaten da; ratioak 1 baino balio handiagoa badu, berriz, enpresa kaudimenduna dela esaten da, eta ratioa 1 baino txikiagoa bada, azkenik, ikuspegi tekniko batetik, enpresak porrot-egoera duela esaten da. Ratio honen balio optimoa [1,5 , 2] tartean dago.


Taula 9. CODESPA Fundazioaren kaudimen totalaren ratioaren kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Iturria: Norberak egindakoa

	2022	2021	2020	2019
Kaudimen totalaren ratioa	1,119	1,156	1,197	1,191

Grafiko 6. CODESPA Fundazioaren kaudimen totalaren ratioaren eboluzioa 2019-2022.

Iturria: Norberak egindakoa



Beraz, taulari eta grafikoari men eginez, CODESPA Fundazioa urte guztietan kaudimenduna da; hau da, fundazioak zorrak baino ondasun eta eskubide gehiago ditu urtero. 2009an 1,119ko kaudimen-ratioa zuen. Honek esan nahi du fundazioak aurkezten duen euro bakoitzeko zor eta obligazio bakoitzetik 1,119€ dituela aktibo garbietan, pasibo horien ordainketari aurre egin ahal izateko. 2020an, ratio hau pixka bat haunditu egin zen eta ratioaren balioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta hedapen-ahalmen handiagoa eta segurtasun-indize handiagoa. Bi alderdi hauek justifikatuta daude, enpresak “gutxi” erabilitako finantzaketa-ahalmena duelako, besteren finantzazioa norberarenarekin alderatuta, eta, ondorioz, baliabideen bolumena ordaindu beharreko zor eta obligazioen bolumena baino handiagoa izango delako eskudirutan. Hala ere, ratio honek 2021ean eta 2022an okerrera egiten zuen fundazioak kaudimen gutxiago izan zuela erakustuz. Honen arrazoa pasiboa aktibo totala baino proportzio handiagoan hazi zelaren atzean dago.

Taulan ikus dezakegunez, urte bakar batean ere ez dira balio optimoak lortzen. Are gehiago, urte guztietan, eta batez ere 2021 eta 2022 urteetan, balioak 1etik gertu zeuden. Beraz, CODESPA Fundazioa kaudimenduna den arren, fundazioak kontuz ibili beharko du zorpetze mailarekin (epe luzeko kaudimenarekin erlazionatuta dagoen beste ratio bat, jarraian aztertuko duguna).

Ildo berean, kaudimen totalaren analisia garatzeko fundazioaren zorpetze-ratioa, autonomia finantzarioaren ratioa eta kapitalaren iraunkorren osakera ratio kalkulatzera eta aztertzerara ekingo diogu.

Zorpetze-ratioak enpresaren finantzaketa-egitura erakusten du, hots, nolakoa den bere finantzaketa. Kanpoko baliabideei dagokien finantzaketaren proportzioa akziodunenarekin alderatuta zein den ikustea errazten du. Ratio handitze bada, enpresa pasiboaren bidez finantzatu du, zorpetzera jo du. Kontrakoa gertatzen bada, enpresa baliabide propioen bidez finantzatu da. Autonomia finantzarioa, enpresak kudeaketa, inbertsio eta finantzaketa erabakiak hartzeko duen gaitasuna da, enpresa kanpoko hirugarreneko independenteki. Ondorioz, ehuneko hau zenbat eta handiagoa izan, teoriarik, orduan eta gaitasun handiagoa izango du enpresak berak bere erabakiak hartzerakoan beste hirugarren batzuen «presio» txikiagoarekin. Azkenik, kapital iraunkorren osakera epe luzetik sortutako finantzaketa osotik, zein parte datorren hartzekodunetik erakusten digu. Enpresak, epe luzean, erabaki finantziariotik independenteki hartzeko duen gaitasuna da. Ratio hori ahalik eta txikiena

izatea komeni da, ondorioz, %50eko edo hortik beherako ehunekoa gomendatzen da.

Taula 10. CODESPA Fundazioaren zorpetze ratioaren, autonomia finantzarioaren eta kapitalaren iraunkorren osakeraren ratioen kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Iturria: Norberak egindakoa

	2022	2021	2020	2019
Zorpetze ratioa	8,407	6,408	5,076	5,241
Finantza autonomia ratioa	0,106	0,135	0,165	0,160
Kapital Iraunkorren osakera ratioa	0,105	0,092	0,088	0,119

CODESPA Fundazioaren zorpetze ratioari dagokionez, ikus dezakegu 2019an, baliabide propioen euro bakoitzeko, kanpoko baliabideek 5,241 €-ko ekarpena egiten zuten. Ratioa 2020 txikitu zen arren, 2021 eta 2022 urteetan handitu da eta honek fundazioak pasiboaren bidez gehiago finantzatu dela erakusten digu (gero eta gehiago zorpetu egin da). Hau, egitura finantzarioan ere ikus daiteke, izan ere, aztertu dugun moduan ondare garbia %10,63ko pisua duen bitartean 2022an, pasibo totalak %89,37ko pisua du. 2022an, zorpetze-ratioa 8,407ko balioa lortu zuen. Honen arrazoia da urte hartan erreserben zenbatekoa aurreko ekitaldiko emaitza onbideratzeko erabili zela. Dakigunez, zorpetze-ratioa eta finantza-autonomiaren ratioa lotuta daude. Hau da, autonomia finantzarioari dagokionez, zorpetze ratioa zenbat eta balio txikiagoa izan, fundazioak finantza-autonomiaren indize handiagoa izango du. Beraz, taulan ikus dezakegun, zorpetze ratioa handitu den bitartean, finantza autonomia ratioaren baloreak murrizten joan dira, Fundazioaren gaitasuna txikiagoa izanik erabakiak hartzerakoan, kanpoko hirugarrenen presioarekin. Azkenik, kapital iraunkorren osakerari dagokionez, balio optimo hau 4 ekitaldietan betetzen da, batek ere ez baitu gainditzen %50a. 202an ratio hau txikitu zen bitartean, 2021 eta 2022an handitu zen. Honek esan nahi du epe luzetik sortutako finantzaketa osotik, hirugarrenetatik soilik %10,5a zeterrela 2022an.

Fundazioen kaudimen osoak esan leike ez duela horrenbesteko garrantzirik, irabazi-asmorik gabeko helburuak, finantzaketa-iturrien izaera eta zorrarekiko mendekotasun txikiagoa dutelako. Kaudimena garrantzitsua da egonkortasuna eta gaitasun operatiboa ziurtatzeko, baina esan genezake ez dela arrakastaren adierazle nagusia fundazioentzat, haien ikuspegia haien gizarte-misioaren eraginkortasunean eta eraginean baitago. Beraz, baliteke

kapital-egituran eta zorrean zentratzen diren finantza-ratioek behar bezala ez islatzea fundazio baten arrakasta eta egonkortasuna. Izan ere, fundazio horiek beren eginkizuna lortzeko baliabideen erabileraren eraginkortasunaren eta efizientziaren mende daude.

4.4. Errentagarritasun ekonomikoa eta finantzarioa

Enpresen errentagarritasuna edozein analisitan kontuan hartu beharreko beste oinarrizko alderdietako bat da. Berebiziko garrantzia izango du enpresarentzat, baita enpresan interesa duten hirugarrenentzat ere, batez ere akziodunentzat. Akziodunen inbertsio-erabakietan ez ezik, enpresaren finantzaketa-ereduari buruzko erabakietan ere izango du eragina. Enpresen errentagarritasunaren azterketa ikuspegi bikoitzetik egingo dugu, inbertsioaren eta finantzaketaren ikuspegitik. Funtsean, galdu irabazien kontutik eta balantzetik ateratako aldagaien analisia jasango dugu.

Nabarmentzeko modukoa da, kasu honetan, fundazio baten azterketa burutzen ari garelarik, aterako ditugun ondorioak ezberdinak izango direla beste enpresa baten azterketarekin alderatzen badugu.

4.4.1. Errentagarritasun ekonomikoa

Errentagarritasun ekonomikoaren bitartez, enpresaren zuzendaritzak edo kudeatzaileak eskuartean dituzten inbertsio edota baliabideekin etekina edo mozkinak lortzeko duten gaitasuna neurtu nahi da. Zuzendarien eraginkortasuna edo efikazia neurtzen du.

Funtsezko tresna errentagarritasun ekonomikoaren ratioa da, ROI (*Return on Investment*) izenez ezagutzen dena eta Mozkina/BAGG (Batezbesteko Aktibo Garbia Guztira) eginez kalkulatzen dena. Ratio honen bitartez, fundazioak inbertsio 100€ bakoitzeko zenbat mozkina lortzeko gaitasuna duen, hau da, bere inbertsioarekin lortzen duen mozkina lortzen da. Ratio honek, arazoa sor dezake zein mozkin mota aukeratzeko orduan mozkin ezberdinak baitaude: BAIDI, BAI eta EBITDA.

Analisi hau egiteko BAIDI erabiliko dugu, izan ere, errentagarritasun ekonomikoa aztertzen ari garenez, finantza-alderdiak alde batera utzi nahi ditugu. Beraz, mozkinari finantza-gastuak kenduko dizkiogu, erakundearen berezko errentagarritasunaren ebaluazio

zehatzagoa eta garbiagoa lortzeko. Hortaz, urte bakoitzeko BAIDI balioak kalkulatzeko ekitaldiko emaitza eta gastu finantzarioak gehituko ditugu, beraien efektua anulatzen gaudelako.

Taula 11. CODESPA Fundazioaren BAIDI kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Iturria: Norberak egindakoa

	2022	2021	2020	2019
Ekitaldiko Emaitza	(81.813)	5.219	4.199	18.215
Gastu finantzarioak	0	(4.594)	(4.049)	(997)
BAIDI	(81.813)	9.813	8.248	19.212

Errentagarritasun ekonomikoaren azterketa burutzeko bere gain eragina duten faktoreak ere aztertu behar ditugu: marjina eta errotazioa.

Taula 12. CODESPA Fundazioaren errentagarritasun ekonomikoaren, marjinaren eta errotazioaren kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Iturria: Norberak egindakoa

	2022	2021	2020	2019
EE (BAIDI/Aktiboa)	-1,108%	0,153%	0,158%	0,359%
Marjina (BAIDI/Sarrerak)	-1,372%	0,173%	0,173%	0,416%
Errotazioa (Salmentak/Aktiboa)	0,808	0,885	0,910	0,863


2019an CODESPAK errentagarritasun ekonomikorik handiena lortu zuen, %0,359ko balioarekin. Fundazioaren errentagarritasun ekonomikoa 2019tik 2020ra okerrera egin du, izan ere, 2019an aktibo totalaren 100 euroko 0,36 euroko mozkin lortzen zuen eta 0,16 euroko mozkin 2020 ekitaldian. ROI n eragina duten faktoreei erreparatuz gero, marjinari dagokionez, %0,42tik %0,17ra pasatu da, hots, saltzen duen 100 euroko 0,42 euroko mozkin lortzen zuen 2019an eta 0,17ko mozkin 2020an. Errotazioari dagokionez, berriz, handitu da, inbertsioaren 1€ bakoitzeko 0,86 euroko sarrerak lortzen zituen 2019an eta 0,91 euroko sarrerak 2020an. Beraz, ROI n murrizketaren arrazoia marjinaren murrizketatik dela ondoriozta dezakegu.

Hurrengo ekitaldian, 2020-2021ean, fundazioaren errentagarritasun ekonomikoa zertxobait txikitu egin zuen, 2020an aktibo totalaren 100 euroko 0,16 euroko mozkina lortu baitzuen eta 2021 ekitaldian 0,15 euroko mozkina. Marjinari dagokionez, berdin mantendu zen %0,173rekin, hots, saltzen duen 100 euroko 0,17 euroko mozkina lortzen zuen bi ekitaldietan. Errotazioari dagokionez, murriztu zen, inbertsioaren euro bakoitzeko 0,91 euroko sarrerak lortzen baitzituen 2020an eta 2021ean 0,88 euroko sarrerak. Beraz, ROIren beherapenaren arrazoia errotazioaren murrizketagatik da.

Amaitzeko, 2022an fundazioak errentagarritasun ekonomiko balio negatiboa izan zuen (urte hartan gastuak gora egin zuten) egoera gehiago okertuz. 2022an aktibo totalaren 100 euroko 1,11 euroko galera zuen. Honen murrizketa bai marjinaren murrizketari (%0,173tik %-1,372ra) bai errotazioaren murrizketari (0,885tik 0,808ra) dagokio.

Grafiko 7. CODESPA Fundazioaren errentagarritasun ekonomikoaren eboluzioa 2019-2022

Iturria: Norberak egindakoa



Urte ezberdinetako errentagarritasuna aztertu ondoren, ondoriozta dezakegu errentagarritasun ekonomikoari dagokionez urte onena 2019an lortu zela. Hala ere, ratioak balio nahiko baxuak ditu aztertutako ekitaldietan zehar. Honek erakusten digu enpresak zailtasunak dituela egiten dituen inbertsioetatik errentagarritasuna lortzeko. Hau aurreikusteko modukoa da, fundazioak ez baitu irabazi-asmorik. Hala ere, baliabide ekonomikoak sortzeko gaitasun mugatuak adierazten digu erakundeak baliabide gutxiago izango dituela bere gizarte-proiektuak zabaltzeko.

4.4.2. Errentagarritasun finantzarioa

Errentagarritasun finantzarioa edo ROE (*Return on Equity*) enpresaren eredu finantzario egokiena erabakitzeko irizpidea ematen du. Errentagarritasun hau oso interesgarria izango da akziodunarentzat eta enpresarentzat. Lehenengo kasuan, enpresan inbertitzeko erabakiak hartzeko eta bigarreanean, finantzaketa-ereduari buruzko erabakiak hartzeko irizpide bat izateko, eta, hala badagokio, baliabide propioen errentagarritasuna hobetzeko, nahiz eta erabaki horrek beste alderdi garrantzitsu batzuei eragingo dien, hala nola, enpresaren kaudimenari.

Erabili beharreko funtsezko tresna hiru ratio hauek osatzen duten unitatea da: baliabide propioen errentagarritasuna (r_1), errentagarritasun finantzario osoa (r_2) eta mailegu emaileen errentagarritasuna edo zorraren kostu efektiboa (r_3). Guzti honekin apalankamendu finantzarioa kalkulatu ahal izango dugu.

Gainera, nabarmentzekoa da CODESPA Fundazioak sozietateen gaineko zerga ordaintzetik salbuetsita dagoela irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen I. kapituluko I. tituluan xedatutakoaren arabera.

Taula 13. CODESPA Fundazioaren errentagarritasun finantzarioaren kalkulua 2019-2022 urte bitartean.

Iturria: Norberak egindakoa

	2022	2021	2020	2019
Baliabide propioen errentagarritasuna (r_1)	-10,42%	0,60%	0,49%	2,12%
Errentagarritasun finantzario osoa (r_2)	-1,49%	0,18%	0,21%	0,43%
Mailegu emaileen errentagarritasuna edo zorraren kostu efektiboa (r_3)	0,00%	0,10%	0,13%	0,03%

Taulari mez eginez, aztergai diren lehen hiru urteetan apalankamendu positiboa ($r_1 > r_2 > r_3$) eman zela ikus dezakegu. Aldiz, azken urtean finantza apalankamendua negatiboa eman zen, zorraren kostu efektiboa baliabide propioen errentagarritasuna baino handiagoa zelarik.

Beraz, CODESPA Fundazioak 2019an zorren koste efektiboa, baliabide propioen errentagarritasuna baino txikiagoa zen ($r_1 > r_2 > r_3$), hots, hartzekodunei dirua eskatzea bazkideei dirua eskatzea baino merkeagoa zen. Izan ere, fundazioak %2,12ko errentagarritasuna lortu zuen bere inbertsioekin eta %0,03 ordaintzen zien hartzekodunei, akziodunek %0,43ko errentagarritasuna lortzen zutelarik. Hortaz, apalankamendu finantzario positiboa zuen fundazioak.

2020an, apalankamendu finantzarioak positiboa izaten jarraitzen zuen. Baina baliabide propioen errentagarritasuna murriztu egin zen (%2,12tik %0,49ra helduz) baita errentagarritasun finantzario osoa ere (%0,43tik %0,21ra pasatuz). Kostuen errentagarritasuna, aldiz, ekitaldi honetan handitu egin zen (%0,03 balio izatetik %0,13ra ailegatuz). Beraz, ekitaldi honetan, %0,49ko errentagarritasuna lortu zuen bere inbertsioekin eta %0,13 ordaintzen zien hartzekodunei eta akziodunei %0,21 ordaintzen zien.

2021ean egoera bi aurreko ekitaldien modukoa zen, hau da, apalankamendu finantzario positibo baten aurrean jarraitzen genuen, eta gainera, 2021ean ratioen balioak (errentagarritasun finantzario osoaren ratioa izan ezik) hazi egin ziren 2020. urtearekin alderatuta. Kasu honetan, hartzekodunei dirua eskatzea bazkideei dirua eskatzea baino merkeagoa zen ere bai, fundazioak %0,60ko errentagarritasuna lortu zuen bere inbertsioekin eta %0,10 ordaintzen zien hartzekodunei eta akziodunei %0,18 ordaintzen zien. Fundazioak %0,42ko apalankamendu finantzario positiboa zuen.

3 ekitaldi hauetan, akziodunen errentagarritasuna zorpetzearen kostua baino handiagoa izan zen, eta beraz akziodunek fundazioak lortzen duen errentagarritasuna eta hartzekodunek hartzen ez zuten errentagarritasunaren zatia eramango zuten. Kasu honetan, aurrekoan bezala zorpetzea merkeagoa izango da, eta fundazioaren helburua baliabide propioen errentagarritasuna handitzea denez, bi gauza egin ditzake: errentagarritasun ekonomikoa (r_2) handitzea edo zorpetzea areagotzea, merkeagoa delako. Beraz, CODESPA Fundazioaren kaudimen totalaren ratioa begiratuko dugu zorpetzea erabiltzea egokia den edo ez ondorioztatzeko. CODESPA Fundazioaren kaudimen totalaren ratioa 3 ekitaldietan ez optimora ailegatzen, hots, 1,5 baino baxuagoa zen. Hortaz, ezin diogu fundazioari zorpetzea gomendatu, porrotera eraman ahal diogulako. Nahiz eta garestiagoa izan, baliabide propioak erabili beharko ditu.

Aldiz, 2022an egoera aldatu egin zen. Baliabide propioen errentagarritasuna negatiboa zen (%-8,93koa), ekitaldiko emaitza negatiboa izateak eragin zuelarik. Honen ondorioz, ekitaldi honetan apalankamendu finantzario negatiboa izan zuen fundazioak, ($r1 < r2 < r3$), eta beraz aurreko ekitaldietan gertatutakoaren kontrako egoera eman zen; baliabide propioek lortzen zuten errentagarritasunaren zati bat hartzekodunek hartzen zuten. Hala, akziodunen errentagarritasuna (%-1,49) zorpetzearen kostua (%0koa) baino txikiagoa zenez, akzioduna kalteturik agertzen zen. Errentagarritasun finantzario negatiboarekin, akziodunek fundazioaren galerak jasan beharko dituzte, eta, ondorioz, oso zaila izango da diru gehiago eskatzea. Honek esan nahi du baliabide propioekin finantzatzea ia ezinezkoa izango dela. Beraz, fundazioak egoera hau hobetzeko ahalegina egin behar du, eta emaitza negatiboak ahalik eta lasterren positibo bihurtu.

CODESPA Fundazioaren errentagarritasun finantzarioa aztertu ondoren, nahiz eta 2019, 2020 eta 2021 urteetan apalankamendu finantzario positiboak lortu, hurrengo urteetan balore negatiboak lortu zituen, ekitaldiko emaitza negatiboak izatearen ondorioz. Hortaz, esan genezake fundazioak egoera hau hobetu beharko duela hurrengo urteetan.

4.5. Diru fluxuen egoera orriaren analisisa

Diru fluxuen egoera orriak eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak adierazten dituzten aktibo monetarioen jatorriari eta erabilerari buruzko informazioa ematen du, mugimenduak jardueren arabera sailkatuta eta ekitaldian magnitude horren aldaketa garbia adierazita. Azken balantzearen diru-saldoak hasierarekiko duen aldakuntza azaltzeko aukera ematen du. Azken batean, diru-fluxuen egoera-orriaren helburua da azaltzea zergatik aldatu den diruzaintza ekitaldian zehar, eta enpresak ekitaldi horretan egin dituen kobrantzak eta ordainketak hiru eragiketa-motatan multzokatuta erakustea: ustiapeneoak, inbertsiokoak eta finantzaketakoak.

Ustiapen-jardueren diru-fluxuak (UJDF), funtsean, enpresaren diru-sarreraren eta gastuen iturri nagusia diren jardueren eragindakoak dira. Inbertsio-jardueretako diru-fluxuak (IJDF) ustiapen-jarduerarekin zerikusirik ez duten inbertsioak besterentzetik eta eskuratzetik datozen kobrantzak eta ordainketak dira. Finantzaketa-jardueren diru-fluxuak (FJDF) dira enpresaren jardura finantzatzen duten baliabide propioak eta besterenak, ustiapen-jarduerarekin zerikusirik ez dutenak, bildu eta itzultzearen ondorioz sortzen diren

finantzaketa-iturrietatik eratorritako kobrantzak eta ordainketak. Hiru hauen baturak ekitaldiko eskudiruaren aldaketa osoa emango digu.

Taula 14. CODESPA Fundazioaren DFE orria 2019-2022 urte bitartean.

Iturria: Norberak egindakoa

DIRU FLUXUEN EGOERA ORRIA	2022	2021	2020	2019
A) USTIAPEN JARDUEREN DIRU FLUXUAK	602.408	1.669.227	(170.008)	2.611.350
1. Ekitaldiaren emaitza zergen aurretik	(81.813)	5.219	4.199	18.215
2. Emaitzaren doikuntzak	52.806	45.871	58.101	77.064
a) Ibilgetuaren amortizazioa (+)	53.103	49.483	44.063	48.076
b) Nariaduragatik egindako balio-zuzenketak (+/-)	(5.000)	(6.188)	10.000	27.991
c) Horniduren aldakuntza (+/-)	4.703			
d) Dirulaguntzen egozpena (-)				
g) Finantza sarrerak (+)		(2.775)		
h) Finantza-gastuak (+)		5.352	4.039	997
i) Kanbio diferentziak (+/-)				
j) Finantza-tresnen arazoizko balioaren aldaketa				
k) Bestelako gastu eta diru sarrerak (+/-)				
3. Kapital korrontearen aldaketak	659.584	1.620.714	(228.269)	2.517.068
a) Izakinak (+/-)				
b) Zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk (+/-)	(198.041)	439.437	(107.870)	(53.896)
c) Bestelako aktibo korronteak (+/-)	(192.054)			
d) Hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk (+/-)	852.954	1.169.470	(241.124)	2.644.944
e) Bestelako pasibo korronteak (+/-)	187.160	7.846	152.786	(83.985)
f) Bestelako aktibo eta pasibo ez-korronteak (+/-)	9.565	3.962	(32.061)	10.004
4. Ustiapen jardueren bestelako diru fluxuak	0	(2.577)	(4.039)	(997)
a) Interesen ordainketak (-)		(5.352)	(4.039)	(997)
c) Interesen kobroak (+)		2.775		
B) INBERTSIO-JARDUEREN DIRU-FLUXUAK	(28.169)	(71.515)	(105.756)	(15.982)
6. Inbertsioengatiko ordainketak (-)	17.228	(71.515)	(105.756)	(15.982)
a) Taldeko enpresak eta elkartuak				
b) Ibilgetu ukiezina		(54.726)	(21.297)	(7.553)
c) Ibilgetu materiala	17.228	(20.796)	(13.894)	(8.428)
d) Ondasun higiezinak inbertsioak				
e) Bestelako aktibo finantzarioak		4.008	(70.565)	
7. Desinbertsioengatiko kobrantzak (+)	(45.397)			
a) Taldeko enpresak eta elkartuak				
b) Ibilgetu ukiezina	(10.940)			
c) Ibilgetu ez-materiala	(34.457)			
C) FINANTZAKETA-JARDUEREN DIRU-FLUXUAK				
D) KANBIO-TASEN ALDAKETEN ERAGINA				
E) ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN GEHIKUNTZA/MURRIZKETA GARBIA	602.408	1.597.713	(275.763)	2.595.368
Eskudirua edo baliokideak ekitaldiaren hasieran	5.385.052	3.787.339	4.063.103	1.467.735
Eskudirua edo baliokideak ekitaldiaren amaieran	5.987.460	5.385.052	3.787.339	4.063.103

CODESPA Fundazioaren ustiapen jardueren diru fluxuak positiboak izan dira ekitaldi guztietan, 2020an izan ezik. Hortaz, esan leike 3 urte haietan likidezia sortzen zuela bere jarduerarekin, eta hori adierazle ona da eta kobrantzen eta ordainketen politikan arrakasta

izan duela erakusten baitu. 2020 ekitaldian, berriz, fundazioak ustiapenean egindakoa ordainketak kobroak baino handiagoak izan ziren.

Ildo honetan, ustiapen jardueren diru fluxuan, ekitaldiko emaitza hartuko dugu puntutzat (zehazki, zergen aurreko emaitza), eta zenbait doikuntza egingo ditugu ekitaldiari dagokion eskudiru-fluxuaren zenbatekoa zehazteko (emaitzaren doikuntzak, kapital korrontearen aldaketak eta ustiapen jardueren bestelako diru fluxuak hartuko ditugu kontuan). Hau esanda, 2019an, ekitaldiko emaitza zergen aurretik 18.215 eurokoa izan zen eta hau, ekitaldien zehar gorabeherak pairatu ditu. Hala, 2020an, beherakada izan zuen 4.199 eurokoa zelarik. 2021ean berriro ere handitu zen 5.219 eurora ailegatuz eta 2022an izugarritzko beherakada izan zuen -81.813 euro lortuz (UJDF kalkulatzeko abiapuntutzat balio negatiboa zuelarik).

Emaitzen doikuntzari dagokionez, diru-fluxuan inolako eraginik ez duten gastuen eta sarreraren doikuntzak aztertzeraz ekingo diogu. Doikuntza egiteko, monetarioak ez diren diru-sarrerak kendu eta monetarioak ez diren gastuak batuko dira, emaitzan duten eragina ezabatzeko. Horren ondorioa diru-sarrerak eta moneta-gastuak (kobratutakoak eta ordaindutakoak edo kobratzeko eta ordaintzeko daudenak) baino ez dira izango. Bloke honen barruan, ibilgetuaren amortizazioak, narriaduragatiko balio-zuzenketak eta horniduren aldakuntzak ditugu. Lehengoari dagokionez, ibilgetu amortizazioaren gastua 2019an 48.076€ eurokoa zen, eta gastu bat izanik balio positiboarekin agertzen da, UJDFren balioa handituz. Ibilgetuaren amortizazioa 2020an murriztu zen arren (44.063 eurokoa izanik), 2021ean eta 2022an aurreko urtearekiko handituz joan zen 49.483 euroko eta 53.103 euroko zenbatekoa lortuz, hurrenez hurren. Bigarrenari dagokionez, balio hau urtetik urtera gutxituz joan da 2021ean eta 2022an diru-sarrera izatera iritsi ailegatuz. 2019an 27.991 euroko balioa zuen eta 2022an 5.000 euroko diru-sarrera izatera iritsi zen. Azkenik, horniduren aldakuntzari dagokionez, soilik 2022 urtean ikus dezakegu 4.703 euroko gastua suposatzen zuelarik, UJDFren balioa handituz.

Jarraian, emaitzaren doikuntzaren informazioaren ondoriozko doikuntzak aztertzeraz ekingo diogu, finantza gastu eta diru sarrerak osatzen dituztenak. 2019an, finantza gastua 997 eurokoa zen eta ez finantza sarrerarik egon. Honek, balio positibo gisa jarduten duenez, 2019an UJDFren balioa handitu zuen. 2020 ekitaldia, finantza sarrerarik gabe jarraitu zuen, eta, gainera, gastuak handitu ziren (4.039 eurokoa zelarik); ondorioz, ekitaldi honetan ere

UJDFren balioa handitu zen. 2021ean, aldiz, finantza-sarrerak egon ziren (-2.775 eurokoa), baina finantza-gastuak (5.352 euro) handiagoak ziren, eta, ondorioz, UJDFren balioa handitu egin zen ere bai. Hortaz, finantza gastuak finantza sarrerak baino handiagoak izan zirenez, informazioagatiko doikuntzek beti balio positibo gisa agertu ziren. 2022an, ez ziren ez sarrera ez gastu finantzariorik egon.

Ildo berean, kapital arruntaren aldaketak aztertuko ditugu. Hauek, ustiapenari lotutako balantzaren aktibo- eta pasibo-elementuetan sortzen diren geroratzeko-doikuntzei dagozkie, eta ustiapen-jardueretako ondasunen eta zerbitzuen benetako korrontearen (sortzapena) eta horien moneta-korrontearen (kobrantzak eta ordainketak) arteko aldearen ondorioz sortzen dira. Honetan, aktibo korrontearen partiden hazkundeak balio negatibo gisa jardungo du eta pasibo korrontearen partiden hazkundeak, berriz, balio positibo gisa.

Aktibo korrontearen partidak aztertuz gero, zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak 2019-2020 urte bitartean gorakada izan zuela ikus dezakegu -53.896 eurotik -107.870 eurora pasatuz eta aldaketa hau balio negatibo gisa erregistratuz. Aldiz, 2020 urtetik 2021 urtera zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak txikitu zirenez, balio negatibo gisa agertzen dira, UJDFa handituz. Beste aktibo korronteei dagokienez, soilik 2022an egon ziren eta balioa handitu zen balio negatibo gisa doitu delarik.

Pasibo korrontean murgilduz gero, hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk 2019an 2.644.944 eurokoa izan zen eta balio positibo gisa erregistratu zen. 2019an UJDF hain altua izateak honen atzean dago. 2019-2020 ekitaldian beherakada izan zuen eta balio negatibo gisa erregistratu zen. 2020tik 2021era bitartean, berriz, berriro ere handitu zen 1.169.470 euroko zenbatekoa lortuz eta balio positibo gisa erregistratuz. Azkenik, 2021-2022 urte bitartean ere balio positibo gisa erregistratu zen aldaketa. Bestelako pasibo korronteei dagokienez, gorakada eta beherakada esanguratsuak eman dira ekitaldietan zehar, 2018-2019 ekitaldian -83.985 eurokoa izan zen eta balio negatibo gisa erregistratu zen. 2019-2020 ekitaldian berriz, asko handitu zen 152786 euroko zenbatekoa lortu eta balio positiboan agertzen zen. 2020-2021 urtean partida honen aldakuntzaren zenbatekoa nahiko murriztu zen, urte horretan soilik 15.563€ko hazkundera emanik eta azkenik, 2022an berriro handitu zen balio positibo gisa erregistratu zelarik.

Ustiapen jardueran diru fluxuarekin amaitzeko, ustiapen-jardueretako bestelako diru-fluxuen aldaketak aztertuko ditugu. Honetan, ordainketak modu negatiboan erregistratuko dira, eta kobrantzak, berriz, modu positiboan. Lehenengo bi urteetan, 2019an eta 2020an, interesen ordainketak soilik erregistratu dira, modu negatiboan noski. 2021ean 2.775 euroko interes kobroak eman ziren baina interesen ordainketak handiagoak izan zirenez, urte hartan ustiapen jardueren bestelako diru fluxuak modu negatiboan erregistratu ziren. 2022an ez ziren ez interesen ordainketarik ez interesen kobrorik eman. Hortaz, honek UJDFren balioaren murrizketa eragingo du.

Ustiapeneko diru fluxuak aztertuta inbertsio jardueren diru fluxuak aztertuko ditugu. Honetan, ekitaldian egindako ordainketak jasotzen ditu, aktibo ez-korronteak eta eskudiruan sartuta ez dauden beste aktibo batzuk eta bestelako aktibo likido baliokideak (ibilgetu ukiezinak, materialak, higiezinetak inbertsioak edo inbertsio finantzarioak) eskuratzetik sortutakoak, baita horiek besterentzetik edo mugaegunean amortizatzen datozen kobrantzak ere.

Inbertsioengatik egindako ordainketen balioa aztergai diren urteetan zehar handitu eta txikitu egin da. 2019an 15.982 eurokoa zen eta 2020an nabari handitu zen 105.756 euroko ordainketa izatera helduz. 2021ean, berriz, aurreko urtearekiko txikitu zen ordainketaren zenbatekoa, 71.515 eurokoa izanik. 2022an, 17.228 euroko ordainketa atzerapena egon zen balio positibo gisa erregistratu zelarik. Aztertzen ari garen ekitaldietan soilik 2022an eman ziren desinbertsioengatik kobrantzak. Hala ere, kobrantza atzerapena eman zen, balio negatibo gisa erregistratu zelarik eta ondorioz, urte hartan IJDF balio negatiboa erregistratu zelarik, gainerako urteak bezala.

Behin hau esanda, 2019an UJDF+ inbertsio jardueretatik sortutako diruzaintza beharrak estaltzeko nahikoak izan ziren, diruzaintza handitu egin zelarik 2.595.368 euroko zenbatekoan. Hortaz, CODESPA Fundazioa urte honetan hazkunde fasean dagoela esan genezake, bere inbertsioen finantzaketa ustiapenaren bidez estaltzen duela.. Hurrengo ekitaldian, 2020an, fundazioak ustiapen-jardueren diru-fluxu garbi negatiboa (UJDF-) eta inbertsio jardueren diru-fluxu garbi negatiboa (IJDF-) izan zuen hasierako fasean aurkituz. Hots, salmentengatik kobrantzak ez dira nahikoak egin beharreko ordainketak estaltzeko eta, gainera, enpresak ordainketa asko egin behar ditu aktibo ez-korrontea eskuratzeko. Honen arrazoa, neurri handi batean, mundu guztia geldiarazi zuen COVID19-aren pandemiaren

atzean dago, fundazioaren jarduera guztiak geldiarazi baitzituen eta jarduera gehiago egitea “debekatu” baitzituen. 2021 eta 2022an ustiapeneko jardueraren diru fluxuak inbertsio jardueren diru fluxuak estaltzen zituen eta gainera nahiko soberakina zegoen diruzaintzan. Bi urte hauetan berriro ere hazkunde fasera itzuli zen.

Diru fluxuen egoera orriaren analisiarekin amaitzeko, ekitaldiko emaitza, sortutako baliabideak eta ustiapen jardueren diruzaintzako fluxuen analisisa burutuko dugu.

Taula 15. CODESPA Fundazioaren ekitaldiko emaitza, sortutako baliabideak eta UJDF 2019-2022 urte bitartean.

Iturria: Norberak egindakoa

	2022	2021	2020	2019
Sortutako baliabideak	52.806	43.295	54.063	76.067
Ekitaldiko emaitza	(81.813)	5.219	4.199	18.215
UJDF	602.408	1.669.227	(170.008)	2.611.350

Taulari men eginez, sortutako baliabideak positiboak izan dira 4 ekitaldietan. Hau fundazioaren jarduerak barne-baliabideak sortzen dituela erakusten digu inbertsio-eragiketarako finantzatzeko. Ekitaldiko jarduerako diru-sarrerak handiagoak dira ekitaldi horretako diru-gastuak baino. Halaber, ustiapen jardueren diru fluxuak (UJDF) positiboa izan da urte guztietan 2020an izan ezik. Honen ondorioz, 2019an likidezia nahikoa zen eta fundazioarentzat egoera orekatua zegoen. Fundazioak barne-baliabideak sortzen zituen bere jarduerarekin, eta likidezia bihurtzen zituen, kobrantzen eta ordainketen politika egokia aplikatuz. Inbertsio-eragiketarako sortzen zituzten diruzaintza-irteerak finantzatzeko nahikoa diruzaintza sortzen zuen. 2020an, berriz, likidezia kezagarria zuen, jardueraren eragiketarako sortutako finantza-baliabideak ez baitziren diruzaintzan gauzatu fundazioak aplikatutako kobrantza- eta ordainketa-politikaren ondorioz. Egoera hau hobetzeko eta behar adinako likidezia-egoerara iristeko, fundazioak bere ahaleginak kobrantza eta ordainketen politika hobetzera bideratu beharko lituzke, jardueraren politika mantenduz. Hala ere, egoerak hobera egin zuen hurrengo urteetan eta likidezia nahikoa lortu zuen berriro ere.

5. ONDORIOAK

Behin CODESPA Fundazioaren analisi ekonomiko-finantzarioa eginda eta 2019-2022 urte bitartean izandako bilakaera aztertu ondoren, hainbat ondorio atera leike, jarraian aurkeztuko direnak.

Lehenik eta behin, uste dut funtsezkoa dela gogoratzea fundazioak irabazi-asmorik gabeko erakundeak direla, eta berariazko gizarte-misioa sustatzeko ezartzen direla, hala nola, laguntza humanitarioa, hezkuntza, osasuna eta komunitatearen garapena, besteak beste. Enpresa komertzialen helburu nagusia etekin ekonomikoak sortzea eta akziodunentzako inbertsioak itzultzea den bitartean; fundazioek, aldiz, inpaktu soziala maximizatzean eta beren baliabideak eraginkortasunez erabiltzean jartzen dute arreta, helburu altruistak betetzeko. Hots, fundazio baten analisi ekonomiko-finantzarioa, CODESPA Fundazioarena kasu, ez dator bat enpresa baten azterketarekin, bere diru-sarreraren egiturak, baliabideen kudeaketa eta helburuak direla eta. Enpresa batean arreta handia jartzen da errentagarritasunean, kaudimenean eta diru-sarrerak sortzeko gaitasunean, eta fundazio batean, berriz, funtsen erabileraren eraginkortasunean eta programen eta proiektuen gizarte-inpaktuan jartzen da arreta.

Hala, Memoriaren 19. puntuari erreparatzen badiogu, CNMVren (Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala) Irabazi Asmorik Gabeko Erakundeentzako Jokabide Kodearekin bat datorren inbertsio-politika bat ezartzea dedikazio horren lekuko garbia da. Urtero, Fundazioaren patronatuak memoria ekonomikoa eta ikuskatutako urteko kontuak berrikusi eta onartzen ditu, gardentasuna eta araudia betetzen direla ziurtatuz. Osotasunaren eta austeritatearen funtsezko balioek gidatzen dituzte finantza-erabaki guztiak, eta baliabideak arduraz eta zuhurtziaz erabiliko direla bermatzen dute. CODESPAren inbertsio-estrategia kaudimenean, errentagarritasunean eta arriskuen kontrolean oinarritzen da, eta zuzendaritza nagusiak eta zuzendaritza-batzordeak zorrotz onartu eta gainbegiratzen dute, Auditoretza eta Kontrol Batzordearen babesarekin. Ikuspegi honek bermatzen du hautatutako inbertsioak seguruak, likidoak eta errentagarriak izatea, betiere fundazioaren hornidura eta proiektuetara bideratutako funtsak zainduz. Dibertsifikazio-estrategiak eta proiektu espezifikotarako funtsen banaketa argiak CODESPAren finantza-osotasuna indartzen dute. Sortutako diru-sarrerak proiektuetarako zuzkidurak handitzera edo ohiko jarduerak finantzatzera bideratzen dira, zerbitzatutako komunitateetan inpaktu positiboa maximizatuz.

Behin hau esanda, ondorioak aztertzeari ekingo diogu. Fundazioaren egitura ekonomikoari dagokionez ekitaldi guztietan aktibo korrontearen balioa aktibo ez korrontearen gainetik dagoela ikusi da, diruzaintza duen pisuagatik, alegia. Fundazioaren diruzaintza-partidan dagoen diru-maila handia eragiketa arruntak estaltzeko, diru-sarrera aldakorrek kudeatzeko, kontingentzietarako prestatuta egoteko, lege- eta kontratu-baldintzak betetzeko eta finantza-kudeaketa eraginkorra ziurtatzeko likidezia mantentzeko beharrak justifikatzen du. Honi esker, fundazioak modu egonkor eta eraginkorrean jardun ahal izango du, bere eginkizun soziala betetzeko baliabideak berehala eskuragarri izango dituela ziurtatuz.

Egitura finantzarioari dagokionez, kanpo finantzaketa barne finantzaketa baino handiagoa izan da ekitaldi guztietan, eta urtetik urtera alde gero eta handiagoa izan da. Are gehiago, kanpo finantzaketaren barnean, epe laburrera finantzazio gehiago lortu du fundazioak, epe laburreko zorrak partida esanguratsuena izan delarik. Galdu-irabazien kontuari dagokionez, lehen hiru urteetan ekitaldiko emaitza positiboa izan zen baina 2022an emaitza negatiboa eman zen. Izan ere, aktibitate propioaren diru sarrera %4an handitu bazen ere, fundazioaren gastuak are gehiago handitu ziren, eta urte horretan ekitaldiko emaitza negatiboa lortu zen.

CODESPA Fundazioaren errotazio fondoaren azterketak agerian utzi du adierazle hau, urtez urte, positiboa izan dela. Errotazio-fondo positiboa izateak esan nahi du CODESPA Fundazioak finantza-kudeaketa osasuntsua eta eraginkorra duela, epe laburreko betebeharrak betetzeko eta eragiketak modu egonkorrean erabiltzeko gaitasuna duela. Honek kaudimen, likidezia eta erabilgarritasun ratioek berresten dute, izan ere, CODESPA Fundazioa 4 ekitaldietan zehar kaudimenduna izan da, hots, epe laburreko zorrei epe laburreko inbertsioekin aurre egiteko gaitasuna izan du. Era berean, likidezia-ratioaren eta erabilgarritasun-ratioaren balioek ere berresten dute; izan ere, balio optimoaren gainetik dauden balioek diruzaintzan zenbateko handia dagoela erakusten digute.

Hala eta guztiz ere, dakigunez, aktibo zirkulatzaileren partidarik garrantzitsuen diruzaintza da. Hau ohikoa da fundazioetan eta irabazi-asmorik gabeko erakundeetan. CODESPA Fundazioaren aktibo zirkulatzailan diruzaintzaren proportzio handiak epe laburrean likidezia bikaina bermatzen badu ere, mugatu egiten du kaudimen tradizionalaren analisiaren sakontasuna. Likido bihurtzeko denbora gehiago behar duten partidak minimoak

direnez, epe laburreko kaudimenari buruz lortutako informazioa ez da hain garrantzitsua. Fundazioak, beraz, bere diruzaintzaren erabilera optimizatzeko estrategietan oinarritu behar du, aukera-kostua minimizatzeko, sortzen ari diren beharrei eta aukerei azkar erantzuteko gaitasuna arriskuan jarri gabe.

Errentagarritasun ekonomikoari dagokionez, lehen 3 urteak errentagarriak izan baziren ere, urterik onena 2019an lortu zen. Azken urtean, ordea, ez zen errentagarritasun ekonomikorik izan, negatiboa izan zen, ekitaldiko emaitza negatiboa izan zelako. Errentagarritasun finantzarioari dagokionez, lehenengo 3 urteetan fundazioak apalankamendu finantzario positiboa lortu zuen, eta horrek esan nahi du erakundea zorpetzea modu eraginkorrean erabiltzen ari dela bere errentagarritasuna handitzeko eta akziodun edo jabeentzat etekin handiagoak sortzeko. 2022an, aldiz, apalankamendu finantzario negatiboa lortu zuen, ekitaldiko emaitza negatiboagatik. Horrek erakusten digu erakundeak zorpetze txikiagoa erabiltzen duela bere kapital-egituran bere finantza-baliabide edo funts propioekin alderatuta.

Hala ere, errentagarritasun ekonomikoaren eta errentagarritasun finantzarioaren analisiak informazio erabilgarria eman dezakeen arren, ez da fundazio baten arrakastaren adierazle nagusia. Fundazioak finantza-iraunkortasunean, kaudimenean eta, batez ere, programen inpaktu sozialean eta eraginkortasunean oinarritzen dira. Bere arrakasta bere eginkizuna betetzeko eta gizartean aldaketa positibo bat sortzeko gaitasunaren arabera neurtzen da, errentagarritasun ekonomiko tradizionalaren arabera baino gehiago. Gainera, CODESPA Fundazioak, batez ere, dohaintzen, dirulaguntzen eta kanpoko beste funts batzuen mende daude beren jarduerak finantzatzeko, eta ez dituzte diru-sarrerak sortzen produktuak edo zerbitzuak salduz. Beraz, finantza-iraunkortasunak lotura handiagoa du funtsak erakartzeko gaitasunarekin diru-sarrera operatiboak sortzearekin baino.

Behin hau esanda, argi dago adierazle hauek garrantzitsuak izan badaitezke ere eta finantza-kudeaketaren alderdi garrantzitsuak erakutsi baditzakete ere, arrakastaren eta eraginkortasunaren benetako neurria ez dagoela zenbaki horietan bakarrik. Indize ekonomiko-finantzarioek fundazioaren osasun finantzarioaren ikuspegi erabilgarria ematen duten arren, funtsezkoa da gogoraraztea fundazioaren helburu nagusia ez dela etekin ekonomikoak maximizatzea, baizik eta fundazioaren eginkizun soziala betetzea eta gizartean eragin positiboa sortzea. Analisi ekonomiko-finantzarioek jardueraren zati bat ulertzen lagun

badezakete ere, funtsezkoa da beste faktore batzuk kontuan hartzea, hala nola, proiektuen eragin soziala, programen eraginkortasuna eta kudeaketaren gardentasuna. CODESPA Fundazioa bere finantza-baliabideak eraginkortasunez administratzeko gaitasunagatik ez ezik, bere jarduera guztietan etikarekin, erantzukizunarekin eta gardentasunarekin duen konpromisoagatik ere bereizten da. Azken batean, errentagarritasun ekonomikoa eta finantza-adierazleak fundazioaren finantza-osasuna ebaluatzeko garrantzitsuak badira ere, benetako balioa gizartean aldaketa positibo bat sortzeko eta pertsonen bizitza hobetzeko gaitasunean datza. Eginkizun noble honek eta haren eragin iraunkorrak eragiten dute CODESPA Fundazioa benetan balio kalkulazinekoa izatea, txosten ekonomiko bateko edozein kopurutik harago.

6. BIBLIOGRAFIA

Amondarain, J., Caraballo, T. eta Zubiaur, G. (2018). *Análisis Contable*, [2018/10, cas]. *ocw.ehu.eus*. <https://ocw.ehu.eus/course/view.php?id=474&lang=eu>

Banco Mundial. (d.b.). *Informe sobre el desarrollo mundial 2022*. Banco Mundial. <https://www.bancomundial.org/es/publication/wdr2022/brief/chapter-1-introduction-the-economic-impacts-of-the-covid-19-crisis>

CODESPA. (d.b.). *Datos económicos* - CODESPA. <https://www.codespa.org/datos-economicos-codespa/>

Fundación Lealtad. (2001). *Fundación Lealtad | Transparencia y Buenas prácticas de ONG*. <https://www.fundacionlealtad.org/>

Fundación Lealtad. (2023). *Informe de Transparencia y Buenas Prácticas-Fundación CODESPA*. Fundación Lealtad. <https://www.fundacionlealtad.org/wp-content/uploads/2023/10/Informe-Fundacion-CODESPA.pdf>

LA AECID - *aecid.es*. (s.f.). *aecid.es*. <https://www.aecid.es/la-aecid>

7. ERANSKINAK

7.1. Balantzea

AKTIBOA	2022	2021	2020	2019
A) AKTBIO EZ KORRONTEA	403.943	438.443	416.762	355.070
I. IBILGETU UKIEZINA	51.544	72.626	40.846	37.161
Aplikazio informatikoak	51.544	72.626	40.846	37.161
II. IBILGETU MATERIALA	292.557	296.410	302.501	315.059
Lursailak eta eraikinak	247.984	257.972	267.959	277.947
Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu batzuk	44.573	38.438	34.542	37.112
III. EPE LUZEKO FINANTZA INBERTSIOAK	59.842	69.407	73.415	2.850
Epe luzeko beste aktibo batzuk	13.156	12.850	2.850	2.850
Erakundeei emandako kredituak	46.686	56.557	70.565	0
B) AKTBIO KORRONTEA	6.981.332	5.983.829	4.819.013	4.996.906
I. ERABILTZAILE ZORDUNAK	352.848	85.402	229.870	239.374
II. ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRAITZERO BESTE AKTIBO KONTUAK	350.529	414.934	465.885	418.097
Zordun batzuk	266.841	348.009	236.432	166.553
Pertsonala	1.476	889	797	1.269
Bestelako zordunak	82.212	66.035	228.656	250.276
III. EPE LABURREKO FINANTZA INBERTSIOAK	290.495	98.441	335.918	276.332
Erakundeentzako kredituak	286.785	97.750	335.918	276.332
Epe laburreko periodifikatzeak	3.710	691	0	0
IV. ESKUDIRUA ETA BESTE AKTIBO LIKIDO BATZUK	5.987.460	5.385.052	3.787.340	4.063.103
Diruzaintza	5.987.460	5.385.052	3.787.340	4.063.103
AKTIBO TOTALA (A+B)	7.385.275	6.422.272	5.235.775	5.351.976

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2022	2021	2020	2019
A) ONDARE GARBIA	785.089	866.902	861.683	857.484
I. FONDO PROPIOAK	785.089	866.902	861.683	857.484
FUNDAZIO-ZUZKIDURA	1.206.532	1.206.532	1.206.532	1.206.532
ERRESERBAK	-	969.351	969.351	969.351
AURREKO EKITALDIKO EMAITZA	(339.630)	(1.314.200)	(1.318.399)	(1.336.614)
EKITALDIKO EMAITZA	(81.813)	5.219	4.199	18.215
B) PASIBO EZ KORRONTEA	92.021	87.318	83.356	115.417
I. EPE LUZEKO HORNIDURAK	92.021	87.318	83.356	115.417
Bestelako hornidurak	92.021	87.318	83.356	115.417
C) PASIBO KORRONTEA	6.508.167	5.468.052	4.290.736	4.379.075
I. EPE LABURREKO ZORRAK	4.609.425	4.451.373	3.059.510	3.452.345
II. ONURADUN HARTZEKODUNAK	1.461.355	629.797	828.853	686.961
III. HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINDU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK	110.253	88.857	112.194	102.375
Hainbat hartzekodun	48.562	34.778	48.725	53.902
Administrazio publikoekiko beste zor batzuk	61.691	54.078	63.469	48.473
IV. EPE LABURREKO PERIODIFIKATZEAK	327.134	298.025	290.179	137.394
ONDARE GARBIA ETA PASIBO TOTALA (A+B+C)	7.385.276	6.422.272	5.235.775	5.351.976

7.2. Galdu-Irabazi orria

GALDU IRABAZIEN KONTUA	2022	2021	2020	2019
A) ERAGIKETA JARRAITUAK				
I. Norberaren jardueraren diru sarrerak	5.964.996	5.684.302	4.762.251	4.618.975
a) Bazkideen eta afiliatuen kuota	418.869	410.741	460.406	674.604
b) Sustapenen, babesleen eta kolaborazioen diru-sarrerak	12.913	23.755	6.549	20.802
c) Ekitaldiko emaitzari egotzitako dirulaguntzak	4.477.897	3.570.789	3.105.178	2.347.848
d) Ekitaldiko emaitzari egotzitako dohaintzak eta legatuak	1.055.317	1.679.017	1.190.118	1.575.722
e) Laguntzen eta esleipenen itzulera	0	0	0	0
II. Laguntzengatiko gastuak eta bestelakoak	(5.138.717)	(4.872.176)	(3.973.840)	(3.680.356)
a) Diru-laguntzak	(5.044.260)	(4.665.974)	(3.844.221)	(3.432.075)
b) Lankidetzengatiko gastuak	(94.457)	(206.202)	(129.619)	(248.282)
c) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak itzultzea	0	0	0	0
III. Pertsonal gastuak	(680.334)	(627.734)	(595.939)	(650.063)
a) Lansariak, soldatak eta antzekoak	(531.924)	(489.087)	(467.239)	(511.356)
b) Gizarte kargak	(148.410)	(138.647)	(128.700)	(138.707)
IV. Bestelako ustiapen gastuak	(184.656)	(133.300)	(140.171)	(221.267)
a) Kanpoko zerbitzuak	(179.230)	(132.906)	(129.739)	(191.305)
b) Tributuak	(426)	(394)	(432)	(1.971)
c) Galerak, narriadura eta horniduren aldakuntza merkataritza-eragiketei	(5.000)	0	(10.000)	(27.991)
d) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	0	0	0	0
V. Ibilgetuaren amortizazioa	(53.103)	(49.483)	(44.063)	(48.076)
VI. Hornidura soberakinak	10.000	6.540	0	0
VII. Ibilgetuaren narriadura eta inorenganatzegatik emaitzak	0	(352)	0	0
A.1) USTIAPENKO EMAITZA	(81.813)	7.797	8.238	19.212
VIII. Sarrera finantziarioak	0	2.775	0	0
a) Balio negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak	0	2.775	0	0
IX. Gastu finantziarioak	0	(4.594)	(4.049)	(997)
a) Zorrak hirugarrenekin	0	(4.594)	(4.049)	(997)
X. Kanbio-diferentziak	0	(758)	10	0
A.2) FINANTZA EMAITZA	0	(2.577)	(4.039)	(997)
A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA	(81.813)	5.219	4.199	18.215
XI. Mozkinen gaineko zerga	0	0	0	0
A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN EKITALDIKO EMAITZA	(81.813)	5.219	4.199	18.215
B) ERAGIKETA EZ JARRAITUAK	0	0	0	0
A.5) EKITALDIKO EMAITZA	(81.813)	5.219	4.199	18.215